



Lasarte-Oriako euskararen azterketa



Ana Labaka Usabiaga
M^o Eugenia Azurza Iraola
Juan Inazio Bereziartua Iraola

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

Ana Labaka Usabiaga
M^a Eugenia Azurza Iraola
Juan Inazio Bereziartua Iraola



LASARTE-ORIAKO UDALA



© Lasarte-Oriako Udala
Azala: ANtzA inprimategia
Inprimaketa: ANtzA S.A.L.
Legezko gordailua: SS -1341/96
Lasarte-Orian, 1996ko abenduan

Lasarte-Oriako

Euskararen azterketa

1. Sarrera	1
1.1. Euskararen sailkapena	1
1.2. Metodologia orokorra	3
1.3. Lekukoak	4
1.4. Sarrerari dagokion bibliografia	6
2. Azterketa fonetikoa	7
2.1. Sarrera: ezaugarri nagusiak	7
2.2. Bokalismoa	7
2.2.1. Bokalen arteko inflexioa	7
2.2.2. Diptongoen azterketa	9
2.2.3. Bestelako fenomenoak	11
2.3. Kontsonantismoa	12
2.3.1. Kontsonanteen sailkapena	12
2.3.1.1. Herskariak edo leherkariak	12
2.3.1.2. Txistukariak	14
2.3.1.3. /f/ Ezpain horzkariak	15
2.3.1.4. /j/ fonema	15
2.3.1.5. Albokoak eta sudurkariak	15
2.3.1.6. Dardarkariak	16
2.3.2. Sandhiak	17
2.3.3. Bustidura	18
2.4. Azterketa fonetikoari dagokion bibliografia	20

3. Deklinabidea	21
3.1. Lasarte-Oriako euskararen deklinabidearen ezaugarri orokorrak	21
3.1.1. Plural hurbila	21
3.1.2. Instrumentala	21
3.1.3. Partitiboa	22
3.1.4. Destinatiboa	22
3.1.5. Ablatiboa	22
3.1.6. Prolatiboa	22
3.2. Paradigmak: kasuen zerrenda	23
3.3. Galde-hitzak	23
3.4. Hitz arrunten deklinazioa	24
3.4.1. Mugagabea	24
3.4.2. Singularra	25
3.4.3. Plurala	27
3.5. Pertsona-izenak	28
3.6. Leku-izenak	29
3.7. Erakusleak	30
3.8. Izenordeak eta beren intentsiboak	30
3.8.1. Lehen pertsona	30
3.8.2. Bigarren pertsona	31
3.8.3. Hirugarren pertsona	31
3.9. Zenbatzaileak	32
3.10. Denborazko aditzondoak	33
3.11. Lekuzko aditzondoak	33
3.12. Deklinabidea aztertzeko erabili dugun bibliografia berezia ..	33

4. Aditza	35
4.1. Lasarte-Oriako aditzaren zenbait ezaugarri	35
4.1.1. HIKA / ZUKA / BERORIKA: aditz-trataera ezberdinen gizarte-erabilera. Alokutiboen erabilera menpeko perpausetan ...	35
4.1.2. Aditz-joko trantsitiboen arteko nahasketa	38
4.1.3. Aditz-forma batzuen erabilera eskasa	38
4.1.4. Faktitiboak	39
4.1.5. Aditz trinkoak	39
4.1.6. Baldintza	40
4.1.7. Ahalera	40
4.1.8. Subjuntiboa	40
4.1.9. Inperatiboa	41
4.2. Paradigmak	42
4.3. Aditza aztertzeke erabilitako bibliografia berezia	78
5. Joskera	79
5.1. Gaztelaniaren eragina	79
5.2. Semantika / joskera loturak	79
5.2.1. Ohitura edo prozesu errepikatua	79
5.2.2. Prozesuaren jarduera	80
5.2.3. Inpertsionaltasuna	80
5.2.4. Erreflexibotasuna	80
5.2.5. Elkarren artekotasuna	81
5.2.6. Ahalmena eta ezina	81
5.2.7. Beharra eta nahia	81
5.2.8. Duda eta ustea	82

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

5.2.9. Gorputzeko egoera	82
5.2.10. Galdegaia / mintzagaia	82
5.3. Perpaus koordinatuak	83
5.3.1. Emendiozkoak	83
5.3.2. Hautakariak	83
5.3.3. Aurkariak	83
5.4. Menpeko perpausak: subordinatuak	84
5.4.1. Konpletiboak	84
5.4.2. Zehar-galderazkoak	84
5.4.3. Baldintzazkoak	84
5.4.4. Helburuzkoak	84
5.4.5. Erlatibozkoak	85
5.4.6. Partizipiozkoak	85
5.4.7. Zergatikakoak	85
5.4.8. Denborazkoak	85
5.4.9. Moduzkoak	86
5.4.10. Kontzesiboak	86
5.4.11. Konparaziozkoak	86
5.4.12. Harridurazkoak	87
6. Ezizenak	89
7. Esamoldeak, esapide bereziak	93
8. Lexiko berezia	103

Hitzaurrea

Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Batzordeak euskara berreskuratze aldera ahalegin zenbait egin du eta egiten ari da azken urteetan, baina gehienetan, ia beti, indarrak euskararen estatusen (gizarte-gaietan) jarri ditu eta ez bere korpusean (hizkuntzaren beraren gorputzean).

Hala ere, filologikoagoa den arlo honek, soziologikoagoa den lehenarekin harreman estua du eta biak uztartu behar dira euskara berreskuratze ahaleginetan.

Eztabaida zaharra da normalizatu beharreko lehena bata ala bestea den argitzea. Zuzenena, ordea, bata bestearen osagarri modu eta momentu egokietan egitea izan daiteke.

Hizkuntzaren korpua definitu gabe ezinezkoa da bere egoera soziala egokiro sustatzea, baina egia da, halaber, alferrik dela korpusean urrunegiko elaborazioa, berarekin ez badu erabilera gizarteratzeko eta normalizatzeko prozesurik.

Hausnarketa horren harian dago Euskara Batzordearen jarduna eta lan honen prestaketa.

Lan honen jatorrian, Euskara Batzordeak 1993an liburu honek duen izenburu bera zuen beka-deialdia dago. Beka-lan hori, lan erraldoi hori, Ana Labakak eta Maria Eugenia Azurzak egin zuten. Beka-lanetik esku artean duzun liburu honetara, ordea, beste txingurri-lan erraldoi bat dago. Lan hori, liburu honek duen mamiaren eta itxuraren zuzendari-lan hori, berriz, Juan Inazio Bereziartuak egin du. Hirurei ere, eskerrak eman behar dizkiegu emandakoagatik.

Eskerrak eman behar dizkiegu Lasarte-Oriako euskararen lehen azterketa hau egiteagatik, ondo egiteagatik eta beste guztion eskura hain gertu dugun, baina hain eskuragaitza suertatzen zaigun informazioa (esamoldeak, ezizenak, hitanoa, ahoskera...) modu antolatu eta erosoan emateagatik.

Ea liburu honek Lasarte-Oriako euskarak daraman kantitate-gehikuntzan kalitatea hobetzeko balioa duen. Hitza irakurleak du.

Euskara Batzordeko lehendakaria
Jesus Mari Ormazabal Mendiguren

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

1. Sarrera

1.1. Euskararen sailkapena

Zaharra da euskal idazleengan euskalki eta hizkera ugaritasunaren kontzientzia eta horren froga argia dugu Leizarragaren aipamena:

Batbederak daki Euskal Herrian kasi etxe batetik berzera ere mintzatzeko maneran zer diferentzia eta dibertsitatea den.

Eta gauza bera esan dezakegu Axularren aipamenaz ere:

Zeren anhitz moldez eta diferentki mintzaten baitira Euskal Herrian; Nafarroa garaian, Nafarroa behean, Zuberoan, Laphurdin, Bizkaian, Gipuzkoan, Alaba-herrian, eta bertze anhitz lekhutan. Batak erraiten du **behatzea** eta bertzeak **so egitea**. Batak **aserretzea** eta bertzeak **samurtzea**. Batak **irakurtzea**, bertzeak **leitzea**.

Baina gisa honetako aipamenen ondoren, Arturo Campiónekin hasi zen euskalkien azterketa zehatza: *Gramática de los cuatro dialectos literarios del euskara*.

Halere, Luis Luciano Bonaparte (1813-1891) izan da euskal dialektologian aurrerapen handienak lortu dituenak. Euskalkiak sailkatze honetan lau saiakera egin zituen: lehena 1861-63 artean, bigarrena 1864-65 artean, hirugarrena 1866-68 artean eta laugarrena 1869an. Azken sailkapen garrantzitsu haren arabera, euskara 25 azpieuskalki desberdinetan berezita zegoen.

Azkuek, berriz, urte batzuk beranduago, zazpi euskalki desberdin aipatu zituen, hau da: bizkaiera, goi-nafarrera, lapurtera, behe-nafarrera, zuberera eta erronkaria. Azkuek gidatu zuen dialektologian hain garrantzitsua den *Erizkizundi Irukoitza*, herriz herri inkestak egiteko lankide ugari erabiliz.

Ondorengo urteetan L.L. Bonaparteren azterketa hartu zen oinarrian, nahiz eta beste zenbait aldaketa egin R. Lafonek, P de Yrizarrek eta beste hainbat azterlarik. Bonaparterena da egindako azterketa serioena.

Gipuzkoa guztian ere ez da leku guztietan berdin hitz egiten. Beraz, gipuzkeraren barnean hiru azpieuskalki bereiz ditzakegu: iparraldekoa, hegoaldekoa eta Nafarroakoa, eta azpieuskalki hauen barnean baita beste hainbat hizkera ere. Iparraldekoan hiru

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

hizkera ditugu: Hernani aldekoa, Azpeiti aldekoa eta Tolosa aldekoa. Hegoaldeko azpieuskalkian hizkera bakarra dugu: Zegama aldekoa; eta Nafarroako azpieuskalkian beste bi hizkera: Burundakoa eta Etxarri Aranazkoa. Baina halere hizkera berean kokatzen diren herrietan ere ez da berdin hitz egiten eta horixe da lan honen helburua, Lasarte-Oriako hizkera zein den edo zein izan den aztertzea.

Lasarte-Oriako euskararen deskribapena egiteko garaian eta berau ere nonbait kokatzearen, gipuzkeraren barnean iparraldeko azpieuskalkian kokatuta legokeela esan beharko genuke eta honen barruan Hernani aldeko hizkeran, zehazkiago esanda; Orion, Usurbilen, Hernanin, Donostian, Pasaian eta Erreterian egiten den azpieuskalkiarekin batera.

P. de Yrizarrek 1972. urtean euskalki bakoitzaren egoera zein zen aztertu zuen. Bere azterketen arabera, gipuzkeraren iparraldeko azpieuskalkian (Hernani, Lasarte-Oria, Orrio, Pasaia, Erreteria, Donostia, Usurbil) 259.440 biztanle genituen eta hauetatik 68.540 euskaldunak; beraz, euskaldunen portzentaia %26,41ekoa da.

Herri honetako euskararen deskribapena egiteko garaian, ezin ahaz dezakegu soziolinguistikoki dituen berezitasun nagusiak.

Lehenik eta behin, esan behar euskararekiko aldaketa bortitza eman duela. Azken 100 urte honetan gutxi gorabehera herri euskalduna izatetik gaur egun den herri erdalduna izatera igaro baita, batez ere industrializazioaren ondorioz, etorkinen etengabeko etorreraren eta beste hainbat faktoreren eraginez.

Historian zehar atzera salto handi bat emanez gero, badirudi Lasarte-Oria herria Santiagoko bideko bidegurutze bat zela, hau da, garaiko erromesei lo egiteko eta jateko aukerak ematen zizkien etxe-multzo bat. Orduetik gaur arte aldaketa nabaria jasan badu ere, argi dago gerra ostetik gaur arte eman duela saltorik handiena, udalerrri desberdinetan banatutako etxe-multzo bat izatetik udaletxe propioa duen herri bat izatera igaro baita azken urte hauetan.

Gertaera demografiko hauekin batera, azpimarragarria da hainbat eta hainbat lasartearrengan somatzen den arazo berezia. Denboraren poderioz eman den etorkinen etorrera bortitza dela eta, badirudi euskaldunak diren lasartear askok euskaraz hitz egiteko ohitura galdu eta gaztelaniari ekin diotela azken urte hauetan, honen ondorioz euskarak zuen lehentasuna galdu eta gaztelaniak hartu duelarik.

Asko eta asko dira ama-hizkuntza eta etxeko hizkuntza euskara izan eta kaleko eraginaren edo antzekoren baten ondorioz gaztelaniari ekin diotenak. Hau horrela izanik, euskaraz komunikatzeko arazorik ez izatetik arazo larriak izatera igaro dira, zenbait kasutan euskara galtzera iritsi diren arte. Beste askok, berriz, zeharo galdu ez badute ere, trebetasuna galdu dute: dena ulertzen dute, baina elkarrizketa luze bat euskaraz egiteko ez dira gai.

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

Honen guztiaren ondorioz, ezinbestekoa ikusi da lan hau aurrera eramatea, galtzen ari baita Lasarte-Orian hitz egin izan den azpieuskalkia, inoiz halakorik izan bada behintzat.

Horretaz gain, lan handiak eman dizkigu laurogei urte gutxi gora-behera duen jende lasartearra topatzea, adinaz gain gurasoak ere lasartearrak izatea nahi izan baitugu.

Amaitzeko, esan beharra dago adineko jendea dela herriko hizkuntza hobekien mantendu duena eta, are gehiago, emakumezkoak, izan ere gizon gehienak lantegian ondoko lankideen eraginez euskara kutsatzeko arriskuan bizi izan baitira.

1.2. Metodologia orokorra

Gaur egun Lasarte-Oriako betiko euskara kalean ez dabilela gauza argia da eta etxeetan erabiltzen den hori Lasarte-Oriakoa bertakoa dela baieztatzeak arrisku handian jartzen gaituela azaldu nahi genuke.

Izan ere, izugarria izan da azken urte hauetan herri honek jasan duen kanpoko jendearen etorrera, eta kanpoko jendea diogunean ez gagozkio soilik Espainiako beste probintzietatik etorri denari, probintziako beste hainbat eta hainbat euskaldunen etorrera ere handia izan baita; hain zuzen ere: Kostaldekoa, Urolaldekoa, Goierrikoa eta Tolosaldeko hainbat eta hainbat herrixkatakoa. Gertaera hau, beraz, kontutan hartzekoa izan da Lasarte-Oriako euskara nolakoa den jakiteko deskribapen honi ekiterakoan.

Horretarako, baldintza batzuk betetzen dituen laurogei urte inguruko jendea aurkitzen saiatu gara. Baldintza horien artean garrantzitsuenak hauek lirатеke:

- Lasarte-Orian jaioa izatea.
- Bere gurasoak ere Lasarte-Oriakoak izatea ahal izanez gero, edo bestela inguruetakoak.
- Osasunez ondo egotea.
- Ondo ahoskatzea.

Udaleko Euskara Zerbitzukoek zerrenda batzuk eskuratu bazizkiguten ere, ez da batere lan erraza izan baldintza hauek betetzen zituen jendea aurkitzea. Aurkitu eta gero bakarren batzuk ezezkoa eman ziguten gainera, lotsatiak zirela eta halako arrazoiak emanda. Hala eta guztiz ere, prestatu zaizkigun gutxi hauen jarrera ezin hobea izan da, eta nahi izan dugun guztietan egon gara beraiekin.

Lehen aipaturiko zerrendan begiratu ondoren, telefonoz gure asmoa azaltzen genien eta elkarren artean aukeratutako egun batean zita jartzen genuen, elkarrizketa aurrera eramanez ahal izateko. Aurreneko egunerako elkarrizketa ahalik eta naturalena

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

izan zedin saiatzen ginen, horretarako alde zuretik aukeratutako gai-zerrenda batekin, elkarrizketa nolabait bideratzearen. Zerrenda barruan honelako puntuak aurki genitzakeen:

- Izen-deiturak.
- Adina.
- Sorlekua.
- Bizimodua: lana, jaiak, gabonak...

Bigarren elkarrizketa baterako galdera zehatzagoak prestatzen genituen gure beharren arabera, deklinabideko galderak adibidez.

Hirugarren elkarrizketa baterako, aukeratuak asper ez zitezen, ezizenak eta herriko pasarte bitxiaren kontaketa eskatzen genizkien.

Esan beharra dago, elkarrizketa naturalak izan direla hizkuntz aberastasun handiena azaldu dutenak eta, oro har, hauexek izan direla lan honen ardatza; galdera zehatzetan, jendearen urduritasuna eta beste zenbait faktore zirela medio, askotan kostatu egiten baitzitzaie zentzua hartzea.

Amaitzeko, argi utzi nahi genuke Basauriko eta Orioko euskarari buruz eginda dauden azterketen metodologiak oso baliagarri gertatu zaizkigula, bietan oinarrituta hartu baitugu geure deskribapena aurrera eramateko bidea.

1.3. Lekukoak.

Zerrenda:

1. Antonio Elizegi Carrera
2. Maria Arregi Etxeberria
3. Maria Izagirre Lopetegi
4. Domingo Erauskin Arsuaga
5. Segundo Sarasola Zubillaga

Antonio Elizegi Carrera

- Lasarte-Orian jaioa Bernarda-enea kale-baserrian. 80 urte.
- Aita lasartearra eta ama andoaindarra, emaztea tolosarra.
- Michelingo lantegian lan egina eta arrazoi horrexegatik kanpoan ibilia.
- Gaztelaniaz eta euskaraz hitz egiteaz gain frantsesez ere moldatzen da.
- Gaztelaniarako joera handia nabari zaio.
- Euskara batuaren eragina nabari zaio.

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

- Semeek ez dute euskaraz hitz egiteko trebetasun handirik, familiarekin gaztelaniaz.

Maria Arregi Etxeberria

- Lasarteko Loidi baserrian jaioa. 88 urte.
- Aita Lasarte-Oriako Hernani partekoa eta ama Donostia partekoa.
- Baserritarra. Donostiara esnea saltzera joaten zen.
- Gaur egun bere seme bakarrarekin eta familiarekin kaleko etxe batean bizi da.
- Donostian neskame egon zen urte batzuk.
- Senarra errezildarra zuen.
- Seme bakarra eta bera euskaldun peto-petoa.
- Gaur egun etxean euskaraz egiten dute semeak eta ilobek.
- Euskara garbia darabil, batuaren eragin handirik gabea.

Maria Izagirre Lopetegi

- Zubietan jaioa 1911-IX-8an.
- Baserritarra. Gaur egun kale-etxean bizi da bere alabarekin eta familiarekin.
- Txikitan Igeldora joana familiartekoekin bizitzera.
- Bilbo aldean neskame egona.
- Senarra euskalduna zuen, Zubietakoa.
- Seme alabak ditu, biak euskaldunak.
- Kutsadura handirik gabeko euskara darabil, aberatsa.

Domingo Erauskin Arsuaga

- Lasarte-Orian jaioa 1908-VII-17an, Zabaleta baserrian, izen berdina duen auzoan.
- Gurasoak lasartearrak zituen, ama Etxetxon eta aita Zabaletan jaioak.
- Michelingo lantegian ibilia.
- Beti Lasarte-Orian bizitakoa, nahiz eta soldaduskan kanpoan ibili.
- Emaztea asteasuarra.
- Bi seme alaba ditu, biak euskaldun peto-petoak.
- Gaur egun Zabaleta auzoko etxe batean bizi da emaztearekin, alabarekin eta familiarekin.
- Oso euskara aberatsa darabil.
- Osasunez ez dabil oso ondo eta horrek arazo txiki batzuk ekarri dizkigu.

Segundo Sarasola Zubillaga

- Lasarte-Orian jaioa.
- Baserritarra.
- Gurasoak Lasarte-Oria inguruko baserritakoak ziren.
- Gaztetandik Michelin lantegian lanean ibilia.
- Emaztea Zamorakoa, etxean gaztelaniaz egiten du.
- Semeekin gaztelaniaz aritzen da.
- Euskaraz trebetasun handia galdu badu ere, hitanoa erabiltzeko joera nabaria du.

1.4- Sarrerari dagokion bibliografia

- BONAPARTE, L.L.: *Cartes des sept provinces basques montrant la delimitation actuelle de l' euskara*. Londres, 1869.
- ETXEBERRIA, J.M.: *Zeberio haraneko euskararen azterketa etnolinguistikoa*. Ed. I.K.A., Zornotza, 1991.
- Talde-lana: *Diccionario enciclopédico del País Vasco*, Haranburu argit., San Sebastián, 1985.
- Talde-lana: *Euskal dialektologiaren hastapenak*, U.E.U., Iruñea, 1983.
- YRIZAR de, P.: *Los dialectos y variedades de la lengua vasca*, Itxaropena, Zarautz, 1981.

2. Azterketa fonetikoa

2.1. Sarrera: ezaugarri nagusiak

Atal honi hasiera emateko geure azpieuskalkian bokalen artean ematen diren interakzio berezienak edo adierazgarrienak aztertuko ditugu eta, ondorioz, erregela fonetiko nagusiak definituko dira. Laburki azalduta, honako hauek dira ezaugarri nagusiak:

E + A = IA : **etxe + -a > etxia**

I + A = IYA : **argi + -a > argiya**

O + A = UA : **ardo + -a > ardua**

U + A = UBA : **ordu + -a > orduba**

A + A = A : **alaba + -a > alaba**

E + E = E : **etxe + etan > etxetan**

Kontsonanteen epentesia : **saio > sayo**

Zenbait adizkitako monoptongazioa: **nauzue > nazue | neukan > nekan**

Bokal bikoitzen monoptongazioa: **txahal > txal**

D > R aldaketa : **lodi > lori | idi > iri | bide > bire**

Bokal arteko zenbait kontsonanteren erorketa : **edan > ean | egon > eon**

F > P aldaketa: **afari > apari | festa > pesta**

“i” ondorengo bustidura: **mutilla, malla, lañoa, atta, dittu, ixildu, maixu, itxu...**

Azter ditzagun ondoren, banan-banan, ikerketa honetan topatu ditugun fenomenoak.

2.2. Bokalismoa

2.2.1. Bokalen arteko inflexioa.

Bokalen arteko inflexioei dagozkien erregela nagusiak honako hauek dira:

E+A=IA: Ia euskalki guztietan gertatzen den fenomeno da. Batez ere E-z amaitutako hitzari A-z hasten den kasu-marka eranstean edota kontsonantez amaitutako hitzari A-z hasten den kasu-marka erantsi eta E epentetikoa agertzen denean gertatzen da. Hitz barruan ere ager daiteke:

etxe + -an > etxian

emakume + -a > emakumia

nekatze + -an > nekatzian

bat + -an > batean > batian

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

bear > biar

I+A=IYA/I: Fenomeno hau, batez ere, I-z amaitzen den hitzari A-z hasten den kasu-marka eranstea gertatzen da. Hitz barruan ere gerta daiteke. Testigantza batzuetan, I+A=IYA gertatu beharrean I+A=I fenomenoak ere agertzen da.

mendi + -an > mendiyan/mendin

bi + -ak > biyak

guzi + -a > guziya

itxi + -a > itxiya

jarri + -ak > jarriyak/jarrik

I+E=I: I-z amaitutako hitzei E-z hasitako eta kontsonantea darraion kasu-marka edo atzizkia eranstea gertatzen da:

begi + -entzako > begintzako

bei + -ena > beina

zerri + -ena > zerrina

zaldi + -ekin > zaldikin

mendi + -etan > menditan

garbi + -egi > garbigi

IO>IYO: Bi motatako fenomenoak gertatzen da, bata sustantiboetan eta bestea sustantiboari erakuslea itsasten zaionean:

balio > baliyo

saio > sayo

geiago > geio > geyo

zion > ziyon

toki + orixe > tokiyoixe

zubi + ortan > zubiyortan

O+A=UA:

guraso + -ak > gurasuak

inguruko + -a > ingurukua

zijoan > zijuan

pauso + -an > pausuan

ango + -a > angua

U+A=UBA: Fenomeno hau batez ere U-z amaitzen den hitzari A-z hasten den kasu-marka eranstea gertatzen da:

ezkondu + -a > ezkonduba

buru + -a > buruba

soñu + -a > soñuba

negu + -a > neguba

diru + -a > diruba

soldadu + -a > soldauba

Diptongoko I bokalerdia+A=YA

jai + -a > jaya
garai + -a > garaya
sasoi + -a > sasoya

Diptongoko U bokalerdia+A=UBA

gau + -a > gauba
lau + -a > lauba

2.2.2. Diptongoen azterketa

I eta U bokalak beste bokalekin elkartutakoan osatzen da diptongoa. Gure euskalkian beheranzko diptongoak ditugu nagusiak, hots, “au, eu, ai, ei, oi”. Historian zehar hitz guztiak ez dira berdin ahoskatu izan eta hiatu baten hausturaz diptongazioak gertatu dira, esate baterako h-aren aspirazioa galtzearen ondorioz gertatutakoak: **auntz, eun, aul, oi, au, nai...**

- **AU diptongoa**: Diptongo honen kasuan alternantzia edota monoptongazioa gerta daiteke:

1. -au / a alternantzia 3 kasu hauetan:

aurpegi / arpegi
aulki / alki
aundi / andi

2. Zenbait adizkitako monoptongazioa:

nauzue > nazue
daukat > dakat

- **EU diptongoa**: Hemen ere bi kasu gerta daitezke:

1. Diptongoaren erdi-bokala kontsonante bihurtzea (bi kasu hauetan soilik):

euli > elbi
huri > ebi

2. Zenbait adizkitako monoptongazioa:

neukan > nekan
geunden > genden

- **AI diptongoa**: Diptongo hau bigarren mailakoa izan daiteke, bokal arteko kontsonanteren baten erorketaz edo despalatalizazioaren ondorioz sortutakoa; adibidez:

adiskide > aiskire
adittu > aittu
laster > laixter

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

- **OI diptongoa**: Hau ere bigarren mailakoa izan daiteke, kontsonanteren baten galeraz sortua:

orixe > oixe

iñori > iñoi

intentziorik > intentziyoik

- **EI diptongoa**: Monoptongazioa gerta daiteke palatalizazioaren ondorioz:

zeinek > zeñek > zeñek

Hiatuak

Bi bokal elkartu arren, bisilabotasunari eusten zaionean hiatusa dela esaten dugu. Hiatuetan fenomeno hauek gertatzen dira batik bat:

A) Monoptongazioa, batez ere tinbre bereko bokalen arteko aspirazioa galtzearen eraginez sortutakoa:

beteegi > betegi

ahal > al

txahal > txal

lehen > len

behe > be

ahaztu > aztu

zahar > zar

nahastu > nastu

ahari > ari

zuhur > zur

ohol > ol

Baina monoptongazioa kontsonante baten galeraz ere eman daiteke:

nago > nao > no

itsusiago > itsusio

b) “B” eta “Y” kontsonanteen epentesia. Bokal itxi eta ireki batez osatutako hiatuetan gertatzen da:

Komonio > komoniyo

purgatorio > purgatoyo

zien > ziyen

sasoia > sasoya

jaio > jayo

gauean > gaubian

2.2.3. Bestelako fenomenoak.

Ondoren, zenbait hitzetan gertatzen diren fenomenoak aipatuko ditugu:

ER > AR

- Hitz amaieran:

bazter > baztar
piper > pipar
maizter > maiztar
eder > ear
bear > bier

- Hitz barruan:

entierro > entiarru
baserri > basarri
eguerdi > eguardi
ederki > earki

- Hitzaren amaieran *-i* bokala duten hiru silabako hitzetan:

izerdi > izardi
igeri > igari
azeri > axari

- Hitz bukaeran bi silabako hitzetan:

bider > biar

IR > ER: kirten > kerten

Sudurkari eta sabaikarien aurreko itxidurak

- O > U itxidura:

non > nun
nondik > nundik

- E > I itxidura:

hechura > itxura

Hitz-hasierako R kontsonantea

Bokal protetikoa eransten zaio maileguak bere horretan hartu beharrean:

- ERR: erramu, errenta, erriyo, erropa, errege, errezibo, errelebo, errial...
- ARR: arratoi, arrosa, arraro, arrabi...

Bokalen arteko asimilazioa eta disimilazioa

- Asimilazioa: ageri > agiri > airi
- Disimilazioa: ikaratu > ikeatu

AGO=O: *Egon* aditzaren zenbait adizkitan eta *-ago* atzizkiarekin gertatzen da:

nago > nao > no

dago > dao > do

gehiago > geyao > geyo

Sinkopak: Guztiz zabaldua dago hitz-amaierako a itsatsiaren sinkopa. Hau da, *-a* itsatsia duten hitzak *-a* itatsi hori gabe ahoskatzen dira eskuarki:

eliza > eliz

gauza > gauz

feria > feri

astakeria > astakeri

2.3. Kontsonantismoa

2.3.1. Kontsonanteen sailkapena

2.3.1.1. Herskariak edo leherkariak

Kontsonanteen azterketarako posizioa aztertu beharra dago, hau da, kontsonante bakoitzak hitz-hasieran, hitz-erdian eta hitz-amaieran nola jokatzeko duen ikusi behar da. Ondorioz, kontsonante bakoitza aztertzen denean eskema bera jarraituko da:

• Hitz-hasieran:

Herskariaren artean sei fonema ditugu: P/T/K (gorrak) eta B/D/G (ozenak). Badirudi garai batean ozenak soilik joan zitezkeela hitz-hasieran. Adibide gisa, hona hemen latinetik mailegatutako zenbait hitzetan gertatutako fenomenoak:

1) Latinez p/t/k > euskaraz b/d/g

tempora > **denbora**

parcatu > **barkatu**

cella > **gela**

causa > **gauza**

2) Latinez b/d/g > euskaraz b/d/g

vespera > **bezpera**

damnu > **damu**

Dena den, fenomeno honek inguruko beste hizkuntzen eraginez indarra galdu zuen eta mailegu berriagoek ez dituzte arau hauek bete. Lasarte-Oriako kasua nahiko nahasgarria dela esan behar da, maileguzko gor ugari baitugu, adb: **pake, pekatu, piper, puntu, kolpe...**

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

• Hitz erdian

Begirada batean ikus daitekeenez, biak dira zilegi: **aguazil, udara, aballa...** nahiz **atera, ikuttu...**; baina leherkarien artean badira fenomeno aipagarriak:

1) d > r aldaketa:

komedia > komeriya
lodi > lori
bide > bire
idi > iri
adio > ariyo
edaria > erariya

2) b/d/g > 0:

edan > ean
edo > eo
eduki > euki
egin > in
ezagutu > ezautu
negar > near
fabore > faore

3) Leherkari ozenak txistukarien inguramenduan gortu egiten dira zenbait forma oso erabilian (bereziki **EZ** hitzarekin): z/s/x + b/d/g > p/t/k. Adibideak:

ez baita > ezpaita
ez baitakigu > ezpaitakiu
ez dakit > eztakit
ez dira > eztia
ez det > eztet
ez gera > ezkea
-z gero > ezkerro
jarriz gero > jarriezkeo
joanez gero > junezkeo

4) Txistukariekin bezala, -t- eta -k-ren inguramenduan ere ozenak gortu egiten dira: -t/-k + b > p. Adibidez: **behinik behin > beñepein; bat-batean > bapatian**.

• **Hitz-amaieran**: Posizio honetan, berriz, gorra bakarrak agertzen dira: **bat, gizonak, eup**.

2.3.1.2. Txistukariak

Gure hizkeran sei fonema txistukari ditugu, hiru frikari /z, s, x/ eta hiru afrikatu /tz, ts, tx/. Beste euskalki batzuetan ez bezala, Lasarte-Oriako kasuan ondo bereizten dira seiak.

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

A) Frikariak

Hitz-hasieran “z” [s] eta “s” [s̺] dira nagusiak: **sorua, salgai, zerriya, zozua...** “x” [ʃ] fonema, berriz, ez da gehiegitan agertzen (**xagua, xoxua...**), bere ordeztatik artikulatutako bereko afrikatua (“tx” [tʃ]) erabiltzen baita maizago.

Hitz-erdian, hirurak ager daitezke: **axeriya, aza, usaya, osaba, goxua, gaziya...**

Hitz-amaieran “z” [s] agertzen da gehienbat (batik bat deklinabidearen instrumental kasuan): **gosez, egarriz...**; baina beste biak ere ager daitezke, oso bakan bada ere: **exkax, arnas...**

Bestalde, *I*-ren inguramenduan, **bustidura** dela-eta, leherkari gor baten aurrean bigarren mailako ahoskatze bat ere sortzen da:

1) -z- + k / t > -x-

gaizki > gaixki
bear dizkiagu > bieixkiu
dizkiagu > dixkiu

2) -s- + k / t > -x-

tristea > trixtia
idiskoa > i(r)ixkua
maistrak > maixtrak
laister > laxte
iristeko > iixteko

Askotan kontsonante hauen balio adierazkorraz hitz egin ohi da (frikari eta afrikatuak), balio honekin hitzaren esanahiari ñabardura subjektiboa eranstean baitiogu, txikitasuna edota handitasuna, maitasuna eta gorrotoa, eta abar. Gure ikerlanean desberdintasunak bilatzen saiatu gara, goxotasuna edo adierazkortasuna aurkitu nahian, baina gure grabaketetan ezin izan dugu hori jaso, sarritan egoerak nahiko artifizialak zirelako. Biana eguneroko erabileran somatu ahal izan dugunez, zenbait hitzetan balio hori bizirik dago oraindik ere:

koskor / koxkor
zuzen / xuxen
zakur / txakur
zerri / txerri
zoro / txoro
gazte/ gaxte
neska / nexka
motza / motxa

B) Afrikatuak

Frikarien familia berekoa izanik, hiru kontsonante hauen arteko desberdintasuna oraindik bizirik dagoela esan daiteke. Kokapenari dagokionez, hitz-hasiera ez da kontsonante afrikatuentzako leku egokia; salbuespen bakarra "tx" [ç] da eta oso erabilia da: **txuri, txakur, txapel, txoro, txepel, txano, txurro...**

2.3.1.3. /f/ Ezpain horzkariak

Fonema hau eskuarki /p/ bihurtzen da, batez ere baserritarren artean. Adibidez:

afari > apari
infernu > inpernu
feria > periya
faltsua > paltsuba
festa > pesta

2.3.1.4. /j/ Fonema

Kontsonante honen ezugarrietako bat euskalkien arten duen ahoskatzeko moduen desberdintasuna da. Geure kasuan ez dago inolako nahasketarik, /j/ fonemak gaztelaniazko "j" bezala [x] ahoskatzen dira beti, nahiz hitz-hasieran nahiz bukaeran. Adb: **jun, jan, jantzi, Jabi, Juliyo, ijito, ajatu, jostatu, josi, jokatu, jelatu...** Salbuespen bakartzat **yayo** aditzondoa har dezakegu.

2.3.1.5. Albokoak eta sudurkariak

A) Albokoak

Albokoa ("l" [l] kontsonantea) hitzaren posizio guztietan ager daiteke, hitz-hasieran, erdian eta amaieran (**luze, ale, makal**). Albokari soilaz gain, albokari anitza dugu ("ll" [ll]), ia beti "i" ondorengo bustiduraz sortua. Ondorengo hauek dira fonema hauekin gertatzen diren fenomeno nagusiak:

- /i/-ren ondoan bustidura ("l" kontsonantearen ondoren bokala datorrenean soilik gertatzen da): **mutilla, makilla, tellatu, illa, allatu, ollo...**
- r > l zenbait hitz eratorritan:
 - afari > afaldu**
 - gosari > gosaldu**
 - bazkari > bazkaldu**
 - euskara > euskaldun**
 - sari > saldu**

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

- /l/ fonema disimilazioz gal daiteke inplosioan (beste kontsonante baten inguramenduan) dagoenean: *alguacil* > **aguazilla**

B) Sudurkariak

Sudurkariak “n” [n], “m” [m] eta “ñ” [ɲ] fonemak ditugu. Hiru kontsonante hauetatik lehenengo biak agertzen dira hitz-hasieran eta hirugarrena, berriz, ia inoiz ez: **nua, maya, motua, naya, miña, moria, mutilla...** Hitz-erdian hirurak ager daitezke: **launa, amona, anaya, iñala, ona...** Hitz-amaieran, berriz, [n] bakarrik ager daiteke: **nun, Donostin, etxian, aman...** Dena den, bukaera **-in** bada eta hurrengo hitza bokalez hasten bada, bustiduraren eraginez [ɲ] bihurtzen da: **egin omen du > eiñ omen du.**

Sudurkariekin gertatzen diren fenomeno nagusiak honako hauek dira:

- Bustidura, “i” bokalaren eraginez (*n > ñ*): **soñu, mingaña, oña, baño, laño...**
- Garai batean galdutako bokal arteko **-n-** kontsonantea hitz eratorrietan berragertzea: **arraia**, baina **arrantzale, arrandeya...**
- Kontsonante hau hitz-bukaeran dagoenean normalean ez da galtzen, baina konposaketa eta elkarketa jakin batzuetan soinu hau galdu edo “r” batez ordezkatzeko da. Adibidez:
 - egun + aldi > eguraldi > egualdi**
 - egun + erdi > eguerdi > eguardi**
- /n/ inplosioan, **-p-** edo **-b-** aurrean **-m-** soinua bezala entzuten da:
 - n + b > m: **zenbat > zemat**
 - n + p > m: **kanpora > kampo**

2.3.1.6. Dardarkariak

Dardarkariak, albokariak bezalaxe, bakunak (“r”) edo anitzak (“rr”) dira eta bokal artean gordeko dute oposizioa. Hitz-hasieran ez dira agertzen, eta hitz-amaieran anitza soilik ager daiteke. Kontsonante hauekin gertatzen diren fenomeno nagusiak honako hauek dira:

- Maileguko hitzen hasieran bokal protetikoa (*a* edo *e*) agertzea: **arratoi, arrazoi, arrisku, erreal, errege, errezatu, errosayua, erromeriya, erremeyo...** Dena den, hitz berrienetan **r** anitza ager daiteke: **radiyua, rebixta...**
- Bokal arteko **-r-** bakuna galtzea:
 - hori > oi**
 - dira > dia**
 - oraindik > uandik**
 - berehala > beela**

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

eseritze > exeitze
horiek > oik
denbora > denboa
hura > ua

- **-r**-ren ondorengo **-d-** kontsonanteak **-n-** eman du kasu honetan: **burdina > burniya**
- **-r-** galdu egin da, disimilazioz, kasu honetan: **reyerta > errierta > errieta > errita**
- Hitz-amaieran, **-a-** artikulua eranstean, kasu jakin batzuetan dardarkari soila agertzen da: **ura, platera, papera**
- **Iru** eta **lau** zenbatzaileen kasuan, jatorrian zuten bukaerako **-r-**a berragertzen da deklinabidean: **laurak, irurak**. Analogiaz **seireun, zazpireun** bezalako formak sortu dira.

2.3.2. Sandhiak

Kontsonanteen arteko eraginez hitzen ahoskerak aldaketa ugari jasaten du. Askotan, gainera, hitz baten bukaerako kontsonanteak ondorengo hitzaren hasierako baten ahoskeran eragiten du, bere aldaketa ekarriz. Kontsonante txistukariak, esaterako, aldaketa ugari jasaten dute beren ahoskeran. Bi arau nagusiren bidez laburbiltzen saiatuko gara.

1) **-l, -n, -r + z- > tz-**: kontsonante hauen ondorengo kontsonante frikaria (**z**) afrikatu bihurtuko zaigu (**tz**). Adibidez:

a) **-l + z- > tz-**
il zan > iltzan
emen al zaude > emen altzaude
ba al zatoz > ba altzatoz

b) **-n + z- > tz-**
egin zuen > intzuen
eman zion > emantziyon
joan omen ziran > jun ementzian
erori egin zan > erori intzan
zein zan > zeintzan

Maileguetan ere, hitz barruan berdin gertatuko da: **sustantziya, atrebentziya, atentziyua, kontsentittu, kontsolatu...** Dena den, **ts**-ari dagozkionak indar gutxiagoz jokatzen duela esan behar da eta oro har: **konsentittu, konsolatu...** bezalako forma soilak aurkituko ditugu.

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

- c) $-r + z- > tz-$
zer zan ori > zertzan ori
ar ezan > artzan
eman bear zuan > eman bertzun
- 2) **ez** hitzari *z*, *l* edo *n* letraz hasten den adizkia erantsitakoan honako fenomeno hauek gertatzen dira:
- a) $ez + z- > etz-$
ez ziran > etzian
ez zinan > etziñan
ez zekian > etzekin
ez zera > etzea
ez zioz > etziok
ez zitzaion > etzitzayon
- b) $ez + l > el-$
ez litzake > elitzake
ez luke > eluke
ez litzaiguke > elitzaiguke
- c) $ez + n- > en-$
ez naiz > enaiz
ez nuke > enuke
ez nekian > enekin
ez nator > enator

2.3.3. Bustidura

Bustidura edo palatalizazioa *i* bokalaren inguramenduan gertatzen da, hitz-barruan nahiz bukaeran, bai *i* bokala bokal hutsa denean, bai diptongoaren bigarren elementua denean. Esan behar, gure hizkera ez dela gertatzen beste hizkera batzuetako *ĩddar*, *billddur*...bezalako kasurik. Hona hemen bustidura-kasuak:

- 1) $I + L > (I)LL$:
oilo > ollo
ilargi > illargi
ibili > ibilli
mutila > mutilla
maila > malla
- 2) $I + N > (I)Ñ$:
baina > baña
mingaina > mingaña
mina > miña

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

3) I + T > TT / IT:

iturri > itturi

ito > itto

baina:

igitai > itai

menditik > menditik

4) I + S > (I)X:

miseria > mixeriya

abisatu > abixatu

maisu > ma(i)xu

maistra > maixtra

bista > bixta

5) I + TS > ITX:

iritsi > iritxi

itsu > itxu

itsaso > itxaso

6) I + ZK > IXK: zenbait adizkitan gerta daiteke:

dizka = dixka

zaizka = zaixka

zaizkit = zaixkit

2.4. Fonetikari dagokion bibliografia

- ECHAIDE, A.: *IKER-3, Azkueren Erizkizundi Iruikotzaren datuen ordenamendua*, Ed. Aranzadi, Iruñea, 1984.
- ETXEBARRIA, J.M.: *Zeberio haraneko euskararen azterketa etnolinguistikoa*, I.K.A. argit., Zornotza.
- MITXELENA, K.: *Fonética histórica vasca*, Diputación de Guipúzcoa, San Sebastián, 1976.
- PAGOLA, R.M: *Euskal atlas linguitikorako ekarria*. Universidad de Deusto, 1990, Bilbo.
- Talde-lana: *Euskal dialektologiaren hastapenak*, U.E.U., Iruñea, 1983.

3. Deklinabidea

3.1. Lasarte-Oriako euskararen deklinabidearen ezaugarri orokorrak.

Atal honetan Lasarte-Oriako euskararen bereziki galtzen edo nahasten ari diren ezaugarri batzuei buruz hitz egingo dugu, bakoitzak bereziki dituen ezaugarriak eta izan duten bilakaera aztertuz.

3.1.1. Plural hurbila

Gero eta gutxiago erabiltzen da. Kasu sinpleenetan bai:

“Gu danOK bai”

Hala ere, esan beharra dago ez dela oso normala eta plural hurbila azaltzen zaizkigun modu hauek ez direla oso entzunak. Aurkitu ditugun kasuak honako hauek dira:

- 1) **Bokatiboa:** kasu hauetan **-o-** bokala da plural-marka:
 - **geok, geon, geoidi...**
 - **zeok, zeon, zeoiri...**
- 2) **Erakusleak:** edozein deklinabide-atzizki har dezake erakusleak eta sustantiboarekin hitz bakarra osa dezake:
 - **seme + oik > semioik**
 - **seme + oidi > semioidi**
 - **gizon + oikin > gizonoin**

3.1.2. Instrumentala

Instrumentalari dagokionez, gure transkripzioetan bi fenomeno topatu ditugu:

- 1.- Zeri edo nori buruz ari garen adierazten duena. Kasu honetan **-(ta)z-** atzizkia erabiltzen da. Adibidez:

Zure arrebatat itzein deu

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

2.- Garraiabidea adierazi nahi denean, hainbat kasutan instrumentala erabili ordez asoziatiboa edo genitibo posesiboa ere erabiltzen da. Hau da, “**kotxez jun naiz**” esan ordez, “**kotxiakin jun naiz**” edo “**kotxian jun naiz**” erabiltzen da. Halaber, “**zaldin etorri naiz**” eta “**trenian jun naiz**” esaten da.

3.1.3. Partitiboa

Partitibo kasuan **-(R)IK/-(R)IKAN** marken arteko alternantzia daukagu eta biak berdin erabiltzen dira. Adibidez:

emakumeik/emakumeikan
euzkik/euzkikan
gizonik / gizonikan

3.1.4. Destinatiboa

Destinatiboari eta honen izenlagunari dagozkion atzizkiak (**-TZAKO** eta **-TZAT**) kasu askotan nahasi egiten dira. Adibidez:

Au zutzako da / Au zutzat da

3.1.5. Ablatiboa

Partitiboaren kasuan bezalatsu, ablatiboan ere alternantzia gertatzen da eta **-TIK/-TIKAN**, **-DIK/-DIKAN** atzizkiak erabiltzen dira, hitzunen eta momentuaren arabera. Adibidez:

errekatik / errekatikan
emendik / emendikan

3.1.6. Prolatiboa

Prolatiboan hitzari zuzenean eransten zaio **-TZAT** atzizkia eta ez du inolako aldaerarik. Honen izenlagunetik **-TZAKO** atzizkia sortzen da, eskuarki ordezko ahaidetza adierazteko erabiltzen dena:

ama → amatzat → amatzako
seme → semetzat → semetzako

3.2. Paradigmak: kasuen zerrenda

Azterketa honetan erabiliko ditugun deklinabide-kasuak honako hauek dira:

1. Nominatiboa (**ZEIN**)
2. Partitiboa (**-IK**)
3. Ergatiboa (**ZEÑEK**)
4. Datiboa (**ZEÑI**)
5. Edutezko genitiboa (**ZEÑEN**)
6. Instrumentala (**ZEÑETAZ**)
7. Soziatiboa (**ZEÑEKIN**)
8. Motibatiboa (**ZEÑE(G)ATIK**)
9. Destinatiboa (**ZEÑENTZAT**)
10. Inesiboa (**NUN**)
11. Leku-denborazkoa genitiboa (**NUNGO**)
12. Ablatiboa (**NUNDIK**)
13. Alatiboa (**NO(R)A, ZEÑE(G)ANA**)

Goian zerrendatutako kasuez gain baditugu ondorengo beste hauek ere, baina ez ditugu paradigmatan sartu, aurrekoetatik eratorriak dira eta:

- Alatibo tendentziala (**NO(R)AKA**)
- Alatibo terminala (**NO(R)AÑO / ZEÑE(G)ANAÑO**)
- Alatibo destinatiboa (**NO(R)AKO**)

Paradigmen taulei dagokienez, gelaska batzuetan ez da inolako formarik agertuko; horrek esan nahi luke forma hori ez dela kasu horretan erabiltzen. Guk ikerlanean bildu ez arren, forma analogiaz atera badugu, parentesi artean agertuko da. Beste kasu batzuetan bi forma aurkitu ditugu aldi berean; kasu horietan bi formak marra bertikalaren bidez banatu ditugu.

3.3. Galde-hitzak

Atal honetan galde-hitzen paradigmak emango ditugu: **zein, ze, nun, zenbat, noiz**. Ahoskerari dagokionez, ohartxo batzuk:

- **Zein / zeñ**: hurrengo hitza kontsonantez hasten bada **zein** ahoskatzen da eta, aldiz, bokalez hasten bada orduan **zeñ**. Adibidez:
 - **Zein da oi?**
 - **Zeñ etorri da?**

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

- **Zenbat** galde-hitzaren ahoskera ez da oso argia, horregatik **zenbat** eta **zemat** arteko zerbait dela uste dugu. Egia esan **-nb-** ahoskera ez da ondo entzuten eta **-m-** kontsonanterara ere hurbiltzen da.
- Soziatiboaren kasu-markan (**-kin**) bustidura (**-kiñ**) gerta daiteke hurrengo hitza bokalez hasten bada.

1	zein / zeñ	ze	----	zenbat	----
2	----	-----	----	----	----
3	zeñek	zek	----	zenbatek	----
4	zeñi	zei	----	zenbati	----
5	zeñen	ze(e)n	----	zenbaten	----
6	zeñetaz	zertaz	----	zenbate(ta)z	----
7	zeñekin	ze(e)kin	----	zenbatekin	----
8	zeñe(g)atik	zeatik	----	zenbateatik	----
9	zeñentzat	ze(e)ntzat	----	zenbatentzat	----
10	zeñetan / zeñe(g)an	zertan	nun	zenbatian	noiz
11	zeñetako	-----	nungo	zenbateko	noizko
12	zeñetatik / zeñe(g)andik	zertatik	nundik	zenbatetik	noiztik
13	zeñeta / zeñe(g)ana	zerta	noa	zenbatea	----

3.4. Hitz arrunten deklinazioa

3.4.1. Mugagabea

Bokalez amaitutako bizigabeak: **taberna, kale, begi, ardo, mundu**

1	taberna	kale	begi	ardo	mundu
2	tabernik	kaleik	begi(y)ik	ardoik	munduik
3	tabernak	kalek	begik	ardok	munduk
4	taberna(r)i	kale(r)i	begi(r)i	ardo(r)i	mundu(r)i
5	tabernan	kalen	begin	ardon	mundun
6	taberna(ta) z	kale(ta)z	begi(ta)z	ardo(ta)z	mundu(ta)z
7	tabernakin	kalekin	begikin	ardokin	mundukin
8	taberna(g)a tik	kale(g)atik	begi(g)atik	ardo(g)atik	mundu(g)at ik

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

9	tabernantz at	kalentzat	begintzat	ardontzat	munduntzat
10	tabernatan	kaletan	begitan	ardotan	mundutan
11	tabernatak o	kaletako	begitako	ardotako	mundutako
12	tabernatatik	kaletatik	begitatik	ardotatik	mundutatik
13	tabernata	kaleta	begita	ardota	munduta

Bokalez amaitutako bizidunak: **alaba, seme, ardi, mando, xagu**

1	alaba	seme	ardi	mando	xagu
10	alabagan	semegan	ardigan	mandogan	xagugan
12	alaba(g)an dik	seme(g)an dik	ardi(g)andik	mando(g)a ndik	xagu(g)andi k
13	alaba(g)an a	seme(g)an a	ardi(g)ana	mando(g)a na	xagu(g)ana

Kontsonantez eta bokalerdiz amaitutakoak: **lur, gizon, ibai, bei, gau, kristau**

1	lur	gizon	ibai	bei	gau	kristau
2	lurrik	gizonik	ibayik	beyik	ga(u)bik	kristauik
3	lurrek	gizonek	ibaik	beyek	ga(u)bek	kristauk
4	lurri	gizoni	ibaidi	beyi	ga(u)bi	kristaui
5	lurren	gizonen	ibayen	beyen	ga(u)ben	kristauen
6	lurre(ta)z	gizone(ta)z	ibaye(ta))z	bei(ta)z	gabe(ta)z	kristaue(ta) z
7	lurrekin	gizonekin	ibaikin	beikin	ga(u)bekin	kristaukin
8	lurre(g)at ik	gizone(g)ati k	ibaigatik	beigatik	ga(u)be(g)a tik	kristau(g)ati k
9	lurrentza t	gizonentzat	ibayentz at	beyentzat	ga(u)bentza t	kristauntzat
10	lurretan	gizonegan	ibayetan	beigan	ga(u)betan	kristaugan
11	lurretako		ibayetak o		ga(u)betako	
12	lurretatik	gizone(g)an dik	ibayetati k	beigandik	ga(u)betatik	kristaugandi k
13	lurreta	gizone(g)an a	ibayeta	beigana	ga(u)beta	kristaugana

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

3.4.2. Singularra

Bokalez amaitutako bizigabeak: **taberna, kalia, begiya, ardua, munduba**

1	taberna	kalia	begiya	ardua	munduba
3	tabernak	kaliak	begiyak	arduak	mundubak
4	tabernai	kaliai	begiyai	arduai	mundubai
5	tabernan	kalian	begi(ya)n	arduan	munduban
6	taberna(ta) z	kalia(ta)z	begiya(ta)z	ardua(ta)z	munduba(ta) z
7	tabernakin	kaliakin	begiyakin	arduakin	mundubakin
8	taberna(g)a tik	kalia(g)atik	begiya(g)atik	ardua(g)atik	munduba(g) atik
9	tabernantz at	kaliantzat	begiyantzat	arduantzat	mundubantz at
10	tabernan	kalian	begiyan	arduan	munduban
11	tabernako	kaleko	begiko	ardoko	munduko
12	tabernatik	kaletik	begitik	ardotik	mundutik
13	taberna(a)	kalea	begia	ardoa	mundua

Bokalez amaitutako bizidunak: **alaba, semia, ardiya, mandua, xaguba**

1	alaba	semia	ardiya	mandua	xaguba
10	alabagan	semiagan	ardiyagan	manduagan	xagubagan
12	alaba(g)an dik	semia(g)an dik	ardiya(g)an dik	mandua(g)a ndik	xaguba(g)an dik
13	alaba(g)an a	semia(g)an a	ardiya(g)an a	mandua(g)a na	xaguba(g)an a

Kontsonantez eta bokalerdiz amaitutakoak: **lurra, gizona, ibaya, beya, gauba, kristauba**

1	lurra	gizona	ibaya	beya	ga(u)ba	kristauba
3	lurrak	gizonak	ibayak	beyak	ga(u)bak	kristaubak
4	lurrai	gizonai	ibayai	beyai	ga(u)bai	kristaubai
5	lurren	gizonan	ibayan	beyan	ga(u)ban	kristauban
6	lurra(ta)z	gizona(ta)z	ibaya(ta)z	beya(ta)z	ga(u)ba(ta)z	kristauba(ta)z
7	lurrakin	gizonakin	ibayakin	beyakin	ga(u)bakin	kristaubakin
8	lurra(g)at ik	gizona(g)ati k	ibaya(g)at ik	beya(g)ati k	ga(u)ba(g)a tik	kristauba(g)at ik

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

9	lurrantza t	gizonantzat	ibayantza t	beyantzat	ga(u)bantza t	kristaubantzat
10	lurrian	gizonagan	ibay(i)an	beyagan	ga(u)bian	kristaubagan
11	lurreko		ibaiko		ga(u)beko	
12	lurretik	gizona(g)an dik	ibaitik	beya(g)an dik	ga(u)betik	kristauba(g)a ndik
13	lurrea	gizona(g)an a	ibaira	beya(g)an a	ga(u)bea	kristauba(g)a na

3.4.3. Plurala

Izen arrunten deklinabideari gainetik begiratu orduko berehala ohartzen gara deklinabide-kasu askotan singularraren eta pluralaren atzizkiak berdinak direla. Hortaz, biak bereizi ahal izateko, normalean azentuaren bidez desberdintzen dira, normalean pluralekoetan lehen silaba indartuz. Adibidez:

- “**au semántzakò eosi et**” (hiru dauzkat baina zaharrenarentzat erosi dut)
- “**sémiantzakò zeoze eosi nai nuke**” (hiru dauzkat eta bakoitzarentzat zerbait)

Bokalez amaitutako bizigabeak: **tabernak, kaliak, begiyak, arduak, mundubak**

1	tabernak	kaliak	begi(ya)k	arduak	mundu(ba)k
3	tabernak	kaliak	begi(ya)k	arduak	mundu(ba)k
4	tabernai	kaliai	begi(ya)i	arduai	mundu(ba)i
5	tabernan	kalian	begi(ya)n	arduan	mundu(ba)n
6	taberna(ta) z	kale(ta)z	begi(ta)z	ardo(ta)z	mundu(be)(ta) z
7	tabernakin	kalekin	begi(ya)kin	ardokin	mundu(ba)kin
8	taberna(g)a tik	kalia(g)atik	begi(ya)(g) atik	ardua(g)ati k	mundu(ba)(g) atik
9	tabernantz at	kaliantzat	begi(ya)ntz at	ardontzat	mundu(ba)ntz at
10	tabernetaa n	kaletan	begitan	ardotan	mundutan
11	tabernetak o	kaletako	begitako	ardotako	mundutako
12	tabernetatik	kaletatik	begitatik	ardotatik	mundutatik
13	taberneta(a)	kaleta	begita	ardota	munduta

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

Bokalez amaitutako bizidunak: **alabak, semiak, ardiyak, manduak, xagubak**

1	alabak	semiak	ardiyak	manduak	xagu(ba)k
10	alaba(g)an	semia(g)an	ardiye(g)an	mandue(g)an	xagube(g)an
12	alaba(g)an dik	semia(g)an dik	ardiye(g)an dik	mandue(g)an ndik	xagube(g)an dik
13	alaba(g)an a	semia(g)an a	ardiye(g)an a	mandue(g)an na	xagube(g)an a

Kontsonantez eta bokalerdiz amaitutakoak: **lurrak, gizonak, ibayak, beyak, gaubak, kristaubak**

1	lurrak	gizonak	ibayak	beyak	ga(u)bak	kristaubak
3	lurrak	gizonak	ibayak	beyak	ga(u)bak	kristaubak
4	lurrai	gizonai	ibayai	beyai	ga(u)bai	kristaubai
5	lurran	gizonan	ibayan	beyan	ga(u)ban	kristauban
6	lurre(ta)z	gizone(ta)z	ibaye(ta) z	beye(ta)z	ga(u)be(ta) z	kristaube(ta)z
7	lurrakin	gizonakin	ibayakin	beyakin	ga(u)bakin	kristaubakin
8	lurra(g)a tik	gizona(g)ati k	ibaya(g)a tik	beya(g)ati k	ga(u)ba(g) atik	kristauba(g)a tik
9	lurrantza t	gizonantzat	ibayantz at	beyantzat	ga(u)bantz at	kristaubantza t
10	lurretan	gizone(g)an	ibayetan	beye(g)an	ga(u)betan	kristaube(g)a n
11	lurretako		ibayetak o		ga(u)betak o	
12	lurretatik	gizone(g)an dik	ibayetatik	beye(g)an dik	ga(u)betati k	kristaube(g)a ndik
13	lurreta	gizone(g)an a	ibayeta	beye(g)an a	ga(u)beta	kristaube(g)a na

3.5. Pertsona-izenak

Pertsona-izenak: **Ana, Joxe, Patxi, Pello, Manu, Unai, Miel.**

1	Ana	Joxe	Patxi	Pello	Manu	Unai	Miel
2	Anaik	Joxeik	Patxiik	Pelloik	Manuik	Unairik	Mielik

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

3	Anak	Joxek	Patxik	Pellok	Manuk	Unaik	Mielek
4	Anai	Joxei	Patxii	Pelloi	Manui	Unairi	Mieli
5	Anan	Joxen	Patxin	Pellon	Manun	Unain	Mielen
Aye k	zetozkian zitxatozki n zitxatozki nan	zetozkiken zetozkiñan	zetozkiyon zitxatozkiyo n zitxatozkiyo nan	zetozkigun zitxatozki n zitxatozki nan	zetozkizun	zetozkizue n	zetozkiyen zitxatozkiye n zitxatozkiye nan

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

IBILI

Nor

	Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa oraina	Ondorioa iragana
Ni	nabil nitxabillek nitxabilleen	nebillen nitxabilleen nitxabilleen	banebil	nebilke nitxabilke nitxabilleen ke	nebilken nitxabilken nitxabilleen en
I	abil abil	ebillen ebillenan	baebil	ebilke ebillenate	ebilken ebillenen
Ua	dabil zebilek zebillen	zebillen zitxabilleen zitxabilleen	balebil	lebilke litxabilke litxabilleen e	zebilken zitxabilken zitxabilleen en
Gu	gabiltza gitxabilzak gitxabilz an	gebiltzan gitxabilz an	bagebiltza	gebiltzake gitxabilzake gitxabilz ake	gebiltzaken gitxabilzake n gitxabilz an ken
Zu	zabiltza	zendebiltza n	bazendebiltza	zendebiltza ke	zendebiltzak en
Zuek	zabiltzate	zendebiltzate	bazendebiltzate	zendebiltzate	zendebiltzate
Ayek	dabiltza zabiltzak zabiltzan	zebiltzan zitxabilz an	balebiltza	lebiltzake litxabilzake litxabilz ake	zebiltzaken zitxabilzake n zitxabilz an ken

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

JUN

Nor

	Oraina	Iragana	Baldintza	Ondorioa oraina	Ondorioa iragana
Ni	n(ij)ua natxiek natxien	nijuan nitxien nitxienan	banijua	nijuake nitxieke nitxienake	nijuaken nitxieken nitxienaken
I	ua ua	ijuan ijuanan	baijua	ijuake ijuanake	ijuaken ijuanaken
Ua	dijua ziek zien	zijuan zitxien zitxienan	balijua	lijuake litxieke litxienake	zijuaken zitxieken zitxienaken
Gu	guazti gatxieztik gatxieztin	gijuaztin gitxieztin gitxieztinān	bagijuazti	gijuaztike gitxieztike gitxieztināke	gijuaztiken gitxieztiken gitxieztināken
Zu	zuaz	zenijuazen	bazenijua	zenijuake	zenijuaken
Zuek	zuazte	zenijuazten	bazenijuazte	zenijuazteke	zenijuaztiken
Ayek	dijuazti zieztik zieztin	zijuaztin zitxieztin zitxieztinān	balijuazti	lijuaztike litxieztike litxieztināke	zijuaztiken zitxieztiken zitxieztināken

JUN

Nor-Nori

	Nei	Iri	Ari	Guri	Zuri	Zuei	Ayei
Ni	---	nijuakik nijuakin	nijuakiyo natxiakiyo k natxiakiyo n	---	nijuakizu	nijuakizue	nijuakiye natxiakiye natxiakiñe
I	ijuakit juanakit	---	ijuakiyo ijuanakiyo	ijuakiguk ijuakigun	---	---	ijuakiye ijuakiñe
Ua	dijuakit zijuakiak zijuakian	dijuakik dijuakin	dijuakiyo zijuakiyok zijuakiyon	dijuakigu zijuakiguk zijuakigu n	dijuakizu	dijuakizue	dijuakiye zijuakiye zijuakiñe
Gu	---	gijuakizk ik gijuakizk in	gijuakizkiy o gatxiakizki yok gatxiakizki yon	---	gijuakizki zu	gijuakizki zue	gijuakizki ye gatxiakizk iye gatxiakizk iñe
Zu	zijuakizki t	---	zijuakizkiy o	zijuakizki gu	---	---	zijuakizkiy e
Zuek	zijuakizki e	---	zijuakizkiy oe	zijuakizki gue	---	---	zijuakizkiy e
Ayek	ijuakizki t zijuakizki ak zijuakizki an	dijuakizk ik dijuakizk in	dijuakizkiy o zijuakizkiy ok zijuakizkiy on	dijuakizki gu zijuakizki guk zijuakizki gun	dijuakizki zu	dijuakizki zue	dijuakizki ye zijuakizkiy e zijuakizki ñe

EAMAN

Nor-Nork

	Nik	Ik	Arek	Guk	Zuk	Zuek	Ayek
Ni	---	namaiki k namaiki n	namaiki natxamai kik natxamai kin	---	namaiki zu	namaikiz ue	namaikiye natxamai ye natxamai ñe
I		---	amaiki amaikin	amaiki(g)u amaikiña(g) u	---	---	amaikiye amaikiñe
Ua	damaikit zamaikit zamaikiñ at	damaiki k damaiki n	damaiki zamaikik zamaikin	damaiki(g)u zamaiki(g)u zamaikiña(g) u	damaiki zu	damaikiz ue	damaikiye zamaikiye zamaikiñe
Gu	---	gamaiz kik gamaiz kin	gamaizki gatxamai zkik gatxamai zkin	---	gamaizki zu	gamaizki zue	gamaizkiy e gatxamai kiye gatxamai kiñe
Zu	zamaizki t	---	zamaizki	zamaizki(g) u	---	---	zamaizkiy e
Zue k	zamaizki tet	---	zamaizkit e	zamaizki(g) ue	---	---	zamaizkiy e
Aye k	damaizki t zamaizki t zamaizki ñat	damaiz kik damaiz kin	damaizki zamaizkik zamaizkin	damaizki(g) u zamaizki(g) u zamaizkiña(g) u	damaizk izu	damaizki zue	damaizkiy e zamaizkiy e zamaizkiñ e

EKARRI

Nor-Nork

	Nik	Ik	Arek	Guk	Zuk	Zuek	Ayek
Ni	---	nakarkik nakarkin	nakarki natxakarki k natxakarki n	---	nakarkizu	nakarkizu e	nakarkiye natxakarkiy e natxakarkiñ e
I		---	akarki akarkin	akarki(g)u akarkiña(g)u	---	---	akarkiye akarkiñe
Ua	dakarkit zakarkit zakarkiña t	dakarkik dakarkin	dakarki zakarkik zakarkin	dakarki(g)u zakarki(g)u zakarkiña(g) u	dakarkizu	dakarkizu e	dakarkiye zakarkiye zakarkiñe
Gu	---	gakarkiz kik gakarkiz kin	gakarkizki gatxakarki zkik gatxakarki zkin	---	gakarkizk izu	gakarkizki zue	gakarkizkiy e gatxakarkiz kiye gatxakarkiz kiñe
Zu	zakarkizki t	---	zakarkizki	zakarkizki(g) u	---	---	zakarkizkiy e
Zuek	zakarkizki tet	---	zakarkizkit e	zakarkizki(g) ue	---	---	zakarkizkiy e
Ayek	zakarkizki t zakarkizki t zakarkizki ñat	dakarkiz kik dakarkiz kin	dakarkizki zakarkizkik zakarkizki n	dakarkizki(g) u zakarkizki(g) u zakarkizkiña (g)u	dakarkizk izu	dakarkizki zue	dakarkizkiy e zakarkizkiy e zakarkizkiñ e

EUKI

Nor-Nork

	Nik	Ik	Arek	Guk	Zuk	Zuek	Ayek
Ni	---	nauka k nauka n	nauka natxauk ak natxauk an	---	naukaz u	naukazu e	nauke natxauke natxauka ne
I		---	auka aukan	auka(g)u aukana(g) u	---	---	auke aukane
Ua	daukat zaukat zaukan at	dauka k dauka n	dauka zaukak zaukan	dauka(g)u zauka(g)u zaukana(g) u	daukaz u	daukazu e	dauke zauke zaukane
Gu	---	gauzk ak gauzk an	gauzka gatxauz kak gatxauz kan	---	gauzka zu	gauzkaz ue	gauzke gatxauzk e gatxauzk ame
Zu	zauzkat	---	zauzka	zauzka(g) u	---	---	zauzke
Zue k	zauzkat et	---	zauzkat e	zauzka(g) ue	---	---	zauzke
Aye k	dauzkat zauzkat zauzka nat	dauzk ak dauzk an	dauzka zauzkak zauzkan	dauzka(g) u zauzka(g) u zauzkana(g)u	dauzka zu	dauzkaz ue	dauzke zauzke zauzkane

JAKIN

Nor-Nork

	Oraina		Iragana	
	Ua	Ayek	Ua	Ayek
Nik	dakit zakit zakiñat	dakizkit zakizkit zakizkiñat	nekin nitxakin nitxakiñan	nekizkin nitxakizkin nitxakizkiñan
Ik	dakik dakin	dakizkik dakizkin	ekin ekinan	ekizkin ekizkiñan
Arek	daki zakik zakin	dakizki zakizkik zakizkin	zekin zitxakin zitxakiñan	zekizkin zitxakizkin zitxakizkiñan
Guk	daki(g)u zaki(g)u zakiña(g)u	dakizki(g)u zakizki(g)u zakizkiña(g) u	genekin genitxakin genitxakiñan	genekizkin genitxakizkin genitxakizkiña n
Zuk	dakizu	dakizkizu	zenekin	zenekizkin
Zuek	dakizue	dakizkizue	zenekiten	zenekizkiten
Ayek	dakiye zakiye zakiñe	dakizkiye zakizkiye zakizkiñe	zekiyen zitxakiyen zitxakiyenan	zekizkiyen zitxakizkiyen zitxakizkiyena n

4.3. Aditza aztertzeke erabilitako bibliografia berezia:

- ESNAL, P. / ZUBIMENDI, J.R.: *Idazkera-liburua*, 1994
- YRIZAR, P.: *Los dialectos y variedades de la lengua vasca*, Itxaropena, Zarautz, 1981.
- EUSKALTZAINDIA: *Euskal Gramatika, Lehen Urratsak I-2*, Bilbo
- YRIZAR, P.: *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano*, Tomo 1, Euskaltziandia, 1984
- ZUBIRI, Ilari / ZUBIRI, Entzi: *Euskal Gramatika Osoa*, Didaktiker

5. Joskera

5.1. Gaztelaniaren eragina.

Gaztelaniaren eraginez, Lasarte-Oriako euskaran hizkera pobretu eta pixkanaka-pixkanaka estruktura askok jatortasuna galdu eta kanpoko hizkuntzaren eredura moldatzen direla ikus dezakegu. Honen adibide bezala har dezakegu zergatikakoetan gertatzen dena, izan ere **zeatik** juntagailua azaltzen baitzaigu, edo gaztelaniazko zenbait juntagailuren erabilera: **aber** (*a ver*), **asiske** (*así es que*), **eske** (*es que*), **igual**, **b(u)eno**...

5.2. Semantika / joskera loturak

Ondorengo ataletan semantikaren eta joskeraren arteko zenbait lotura azalduko ditugu:

1. Ohitura edo prozesu errepikatua.
2. Prozesuaren jarduera.
3. Inbertsonaltasuna.
4. Erreflexibotasuna.
5. Elkarren artekotasuna.
6. Ahalmena eta ezina.
7. Beharrezana eta nahia.
8. Duda eta ustea.
9. Egoera.

5.2.1. Ohitura edo prozesu errepikatua.

Ohitura edo prozesu errepikatua **-t(z)e(n)** atzizkiaren bidez adierazten da. Gure testigantzetan ez dugu **ohi** partikularen adibiderik topatu:

goizian goiz jeikitze giñan beyak jeiztea
igandero jute gea mezeta

5.2.2. Prozesuaren jarduera.

Prozesuaren jarduera adierazteko modu desberdinak daude:

- **Ibilli** aditzaren bidez (**-t(z)e(n), -etan, -n, -ka...**):
baloyian ibiltze zan
tensiyua artuz ibilli naiz
kasetak bijilatzen ibiltze zan

- **E(g)on** aditzaren bidez:
aspaldin okasiyuan de
ua geldik zeola

- **A(r)i** partikularen bidez:
leno josten asko aitze zian
lanian ai gea

- **Jardun** aditzaren bidez:
soruan jardute giñan
izketan jardute'ia

5.2.3. Inpertsionaltasuna.

Hirugarren pertsonako aditz laguntzaile intrantsitiboaren bidez eta zenbait kasutan bigarren pertsonaren bidez adierazten da inpertsionaltasuna:

meza bat utseitten bazu...
eurra txikitu biartzan suba in nai bazan
nunbattetik bizi biarko'a ba!
pezta bat osatze bazan, ua geyo

5.2.4. Erreflexibotasuna

Erreflexibotasuna (**norbean**) **buruba** egituraren bidez adierazten da:

nee burubai esan niyon

5.2.5. Elkarren artekotasuna.

Elkarren arteko erlazioa **bata/bestia** bikotearen bidez eta **alkar** hitzaren bidez adierazten da:

**bata bestian gañian jartze'a
eunero alkarrekin izate giñan**

5.2.6. Ahalmena eta ezina.

Ahalmena eta ezintasuna potentzialaren bidez eta **ezin** eta **al** partikulen bidez adierazten da:

**miñak ez tin txantxik, ezin diñat aguantatu
gustoa ibiltzia baño pesta obia ezin leike izan
altzan bezela itte gendun
al gendun tokia jute giñan**

5.2.7. Beharra eta nahia

Beharra eta nahia **biar/bier** eta **nai** hitzen bidez adierazten dira:

**baatzan atxurrian ai biar zan
noaatte kanpoa jun biarra zun
ne lixta biartzun
au itxuratzeko dirubak bat in bierko'u
zortzitako jun biar izate'ue
ordun umiai nai zan itte ziyen
oain nai dan klase guziya ikuste'a
nai luke!
ez gendun nai izaten
jun nai zunak, gabeko eskolak ordun'e bazian
eztia oik nai orduako pasatzen
nai bezela bizi'ia**

Aipatzekoa da **biar / bier** hitzak oso kontrakzio handiak jasaten dituela orainaldiko adizkietan:

**joan behar dut → jun biet
joan behar dute → jun biaue
esan behar diot → esan bieyot**

5.2.8. Duda eta ustea.

Duda eta ustea **ote** eta **emen / omen** partikulen bidez adierazten da.

Ba ote?

Nun ote do?

zerbatte asi ote'idan, zebatte billatu ote uen?

zerbikalak'e mareuak emate omen dittu ta

Zubitarrak Usurbiltarrakiñ omen tzian

Usurbil partian zirrinda'at arrapatze emen du

5.2.9. Goputzeko egoera.

Gorputzeko egoerak (gosea, egarria, logura...) adierazteko, **goseak** (**akabatzen**) **egon** moduko egiturak erabiltzen dira:

gosiak altzaude?

loaliak puskatzen neon

pozak etorri giñan

5.2.10. Galdegaia / mintzagaia.

Galdegaia, lehendik ezagutzen ez dugun informazio berria dakarren atalari deitzen diogu, eta informazio berri hau perpaus osoa nahiz perpauseko atal bat izan daiteke. Mintzagaia, berriz, aurretik ezagutzen duguna errepikatzen duen atala izango da eta perpaus-hasieran kokatu ohi dugu. Galdegaia perpauseko atal bat denean, atal hori aditzaren aurre-aurrean jarri ohi da eta bien artean etenik egin gabe ahoskatzen da:

Gue paperak Donostiko juzgadun de

Nee gizon difuntuba're Zubitakua zan

Galdegaia aditza bera baldin bada, **(eg)in** aditza tarteratzen da laguntzaile gisa:

itzein in biar det

jun in da

Galdegaia baietza denean, aditza esaldi-hasieran edo eten baten ondoren jartzen da eta azentuarekin eta intonazioarekin markatzen da. Aditz trinkoen kasuan, hasieran **ba-** aurrizkia eranstean zaio:

etorri (d)a gu(r)e atta
ba(d)ijua zu(r)e semia

5.3. Perpaus koordinatuak

Atal honetan mota desberdineko perpaus koordinatuak nola eratzen diren azalduko dugu.

5.3.1. Emendiozkoak

Juntagailuak: **ta/da, (er)e/re, baita, ezta**. Koordinatuen barne gehien erabilitako juntagailua dugu hau. Adibidez:

**leengo datuak bazittuen da ospitalian artu niñuen
gerra sortu ta granadakin puskatu zuen dana
nee gizon difuntuba're Zubitakua zan
nik'e banekin oi
baita zuk'e
ezta zuk'e**

5.3.2. Hautakariak

Juntagailuak: **(ed)o, e(d)ota, ala**. Gure testigantzetan ez dugu **ala** juntagialuaren kasurik topatu. Adibidez:

**ayek'e bi aizpa o iru zian
apaizak eo besten batek esan dit**

5.3.3. Aurkariak

Juntagailuak: **baño, berriz, biarrian, bestela, ostera, ordia, gabe**

Adibidez:

**len emen tzan Eizagirre gue apellidua baño...
...auzkuak baño arek...
...baño geatu nitzan...
...baño areatikan aparte...
Pasiak aztu itteiala baño...**

5.4. Menpeko perpausak: subordinatuak

5.4.1. Konpletiboak

Menpeko esaldi konpletiboak eratzeko atzizkiak: **-la, -n, -nik, -lakuan, -tzeko.**

**attona difuntubak esate zun gue lengo apelliduba Eizagirre zala
eztakit beste alkateik izan ote (d)an ainbeste lan in dunikan
arek ez ierri ausita zeonik, etzun uste ausi nunik
zer da ta naiko uda izango zalakuan etorri giñan ba pozak
amai esan bieyozu itzeiñ in biar detela ta etortzeko neana**

5.4.2. Zehar-galderazkoak

Atzizkia: **-n**

**attak esan dit ia etorri neiken
Eztakit nik noiz ezautu nun nik turroya jatia
Eta ba al dakizu noiz ateatze'ittuen ganauk?**

5.4.3. Baldintzazkoak

Atzizkiak: **baldin / barin / balin...ba-, ezke(r)o.** Adibideak:

**geyo jakingo bagiñuke obe
atxurra brilluakin eongo ba(d)a, aittu in bieu
pulmoniya barin ba (d)u akabo!
aste erdin jayik balin bazan, obeto aprobetxatze genun
esniakin eosi ezkeo askoz errexaua (d)a artzen**

5.4.4. Helburuzkoak

Subjuntiboaz gain, honako atzizki hauek erabiltzen dira: **-tzeko, -tze(r)a, -tze(ag)atik.** Adibidez:

**kontribuziyua paatzea Donostia jun in biar izate'ue
eskuba sartu zun aur-launa kentzeko
esnia jartze niyon artzeko ta esnia ez eateatik ixkintxo in
ua ikusteatik jun nitzan**

5.4.5. Erlatibozkoak

Erlatibozko perpausak **-n** atzizkiarekin eratzen dira. Adibidez:

**bi aizpa zarrenak eta oain Usurbillen bizi (d)an ua, irurak giñan
Lasarte etorri'an batian
gue semia ta bizi (d)ian Txurruka kalia, or sartze zan estazyua
jun dan febreruan oitabatian
Iguaran da bizi'idan tokiyoixe**

5.4.6. Partizipiozkoak

Mota honetakoak partizipioari **-tako** atzizkiarekin edota zuzenean deklinabide-marka erantsiz eratzen dira:

**Lizarra apaiza bizittutako etxia
Oriyan upelatei aundiya zan, pintatutako upelakin**

5.4.7. Zergatikakoak

Atzizkiak: **-lako, bai-, -ta/-da/-la ta**. Azizki hauetaz gain **zeatik** partikula ere erabili ohi dute, noizik eta behin, gatzelaniaren eraginez edo. Adibideak:

**ni klinikatik etortzeko neolako eniñuen eaman
oaiñ apenas lanik itte (d)uen kanpoako mojak, zartu (d)ia ta
Miel Anjel bea're parterua baita!
gañontzian dana kotrabandua baizeon
lentxio jun da, bazkaltzea bialdu biar dula ta
zeoze pasa zan kalentura bajatzeko, zeatik etsik ementzeuden ateako
enitzala**

5.4.8. Denborazkoak

Denborazko perpausak adierazteko partikulak eta atzizkiak: **aurretik, baño len, orduko, arte(r)año, -ne(r)ako, -nian, bakoitzian, guztitan, bitartian, -netik, -neko, ta ge(r)o, ezke(r)o, -la, ala, berritan, alik eta...arte**. Guztien artean erabilienak **-nian** atzizkia eta **gero** partikula dira. Adibideak:

**ezkondu baño leno jun nitzan bixitatzea
jayo orduko asi zian familiarrak, kotxian zeola
bertako jendia asi arte libre gendekan jutia
jate deun arte biziko gea**

**beotzen aste zianian aik miñak!
bestiak ezin tzuenian jute nitzan Donostia esneta
Lasarten bizittu zian etxeko obrak in bitartian
kalentura nakan bitartian ez ematen janik
irakiñazi ta geo toalla aundi'atekin tapatu**

5.4.9. Moduzkoak

Partikulak eta atzizkiak: **bezela, ba...bezela, modun, antze(r)a, -la, -nez, gabe, eziñik, -ta.** Adibideak:

**leno Antiguoa juten zian bezela oañ or bertan
Gabonetan'e bai, tokatze zan bezela
oaiñ eozin frantsesekin itte't moldatzeko moun
markapasua operatzen ai diala infartuak eman
batak bestiai esanez
beko suan bueltak emanez tanboliñian
eztakit zenbat denboan artugabe eondu naiz
zutik eon eziñik
opeatuta ibiliya naiz**

5.4.10. Kontzesiboak

Partikulak eta atzizkiak: **naizta, ba-/ta/-la...(e)re, -agatik, ezkerore.** Adibideak:

**oaiñ emen itte ezpaa're, etortze'a
ondona izate zala're, ordun gaixki**

5.4.11. Konparaziozkoak

Partikulak eta atzizkiak: **-n baño...-a(g)o, -n bezin, zenbat eta...ago ordun da...ago.**

5.4.12. Harridurazkoak

Harridura modu askotara ager daiteke: intonazioaren bidez, galde-hitzen bidez, erakusleen bidez... Adibideak:

**oixe!
ezta loik'e!**

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

aik algarak bota zizkian!
Jesus, aik egarrrik!
ene!
pulmoniya barin ba'u akabo!
eztaka eskapuik!
oaindik alako seterroik!
auxe komeriya!
amar senire bizittu geo!
ara, ama baator!
etzan oñetakoik eta!
bai biar'e!
oi mixeriya!
majiñat kafe tostatu (d)et!
aik kafe usayak eote zian!
zenbaitten bixta izan banu, la putria!
ara aspiradora emen!
difentzi earra!
Jesus, Maria ta Jose!
goatuko ez naiz ba!
nai luke!
ara umiak biurrik badian o eztian!
oixe gozua jungo zala!
berriz ez geo jun olako lanik ittea e!
gizajua jun da ba!
aik'e bazian denboak!
zenbat pasa bier dan!
kamioiyak ta ainbesteko kargak puskatuko eztue ba!
nik ikusi berriya'et, ta ene!
aze pasua!
kotxeik eta pasatzeik ez!
aze rekorridua!
zeiñ baño zeñ earro, txitxiyakin da!
aik jantzik ta oik gauzak, ordun e distingitze zian!
dotore asko!
in tzian inpresiyo bat!
ala Jainkua!
bai ala ustet!
egiya (d)a oi!
aixa!
biarko!
jun biarko!
andik aurea nulo!
aik erretolikak!
olakoxe komerik!
ara berriz, aizue!
ene, ua faltatu be gue etxian!
gizajua jun da ba!
geo're zenbateañokua azi ezta!

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

**alajainkua!
ara berriz, aizue!
mundu zar au!
alde iak!
alkarrekin ibiltze giñan, alkarrekin ibiltze giñanez!
ixildu'be aiko'en!
bosteterdik baño leno etxetik atea ta martxa!
dana jaten giñun da kitto!
muturrak austeko're!
oi den marka oi!
nik alare miñ!**

6. Ezizenak

Juan Garmendia Cortadi “Zeleta”k *Aurtzaroko oroipenak (recuerdos de infancia)* Lasarte lanean Lasarte-Oriako hainbat ezizen aipatzen dituela ikusi ondoren, Lasarte-Oriako ezizenen bildumatxo bat egiteari ekin genion. Bagenekien, ordea, zeregin delikatuia izango zela, jendeari ez baitzaio gustatzen beren edo familiakoen ezizenak argitara ematea.

Lanari heldu eta oztopoak ezagutu genituen: batetik jendeari ez zaizkio edozein testuingurutan ezizenak ateratzen, beren inguruko jendearekin baizik. Halere, lortu genuen, zenbait kasutan, ezizenak botatzen hastea. Baina kontatzen zituzten neurrian beldurtu egiten ziren, ez zuten inor haserrearazi nahi eta inon ez argitaratzeko eskatzen ziguten. Bestalde, “*hau ez grabatu*” eta antzekoak eguneroko bilakatu ziren.

Beraz, gure asmo xumea hankamotz geratu zen eta gaur egungo zenbait ezizen bildu eta sailkatu besterik ez dugu egin. Inor mindu gabe, ahoz ahoz gorde dena idatziz jartzea beste asmorik ez dugu izan.

Hona hemen, Lasarte-Oriako ezizenen lagin bat:

1. Sorlekuari, jatorriari edo bizilekuaren erreferentzia egiten dieten ezizenak:

- Rusa/rusua
- Atutxa
- Tranpazulota
- Amalabide
- Labakanekuak
- Pangorri
- Errekartutxo
- Aitona Mutriku
- Amona kanikas
- Rioja
- Muatz
- Baxaundi
- Txartel
- Ataundarra
- Gallegua
- Bixkai
- Txurtxil
- Goyerri
- Berri
- Etxetxo
- Kaxkarro
- Pepene

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

- Indianone
- Juanito Attaun

2. Gorputzeko berezitasun baten araberako ezizena:

- Motza
- Txikiya
- Kokotz
- Konkor
- Koskor
- Txato
- Aundiya
- Okerra
- Ero aundiya
- Katuarraiya
- Beltza
- Kaskabeltza
- Zerri
- Ortza bakarra
- Izena+txikiya
- Gorriya
- Lau t'erdi
- Mutur beltza
- Beltxa
- Kaxkazuri
- Luxia
- Txerrimutur
- Burugorri
- Buruzuri
- Exkerra
- Amona (gizonezkoa)

3. Jokaeraren edo izaeraren araberako ezizenak:

- Krixto
- Jesukrixto
- Amabirjiña
- Pako Astua
- Aireplanua
- Erbiya
- Xautx
- Kaamelus
- Bokaillos
- Zorro
- Xatorra

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

- Saltsas
- Katuba
- Tonto
- Judas
- Franko
- Akerra
- Erodes
- Artzaiya
- Idiya
- Mandua
- Txintxua
- Txulua
- Ijitua
- Xomorrua
- Trikuba
- “Niña de oro”

4. Bestelakoak:

- Pirula
- Kelepiton
- Xela
- Kirrimarra
- Zapatero
- Europa
- Potro
- Xardiña
- Kotxetxin
- Piloto
- Muskarra
- Kanaiyua
- Amona kanikas
- Azaburuba
- Ixtingorra
- Txistorritas
- Zeleta
- Axal
- Koxkote/koxkote zarra
- Lekion
- Kolon
- Kattanero
- Pintore
- Langa
- Tranbia
- Xarpa
- Pitas
- Talo

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

- Txungo
- Zaldi beltza
- Sarjento Palankillas

7. Esamoldeak, esapide bereziak

Ahozko hizkuntzaren ezugarri berezietakoak ditugu esaera zahar eta esamoldeak, eta agian bi atal hauek azterketa berezia beharko lukete Lasarte-Oriako ingurunean zeintzuk erabiltzen diren ikusteko. Dena den, oraingoan gure transkribaketetan agertu zaizkigun esamoldeak zerrendatzera mugatuko gara.

Parentesi artean agertzen dena geure azalpena da eta letra etzanez idatzia dagoena transkribaketan agertutako adibidea da.

Dena den, esamolde edo esapideak azaldu aurretik esamolde hauen izaera azaldu nahi dugu, mota desberdineko bilketa egin baitugu:

1. Nahiko galtzorian dauden esapideak, gutxitan entzuten direnak eta sarritan jende helduari soilik entzuten zaizkionak, sarritan esaeratzat har ditzakegunak.
2. Esapide ezagunak izan arren esanahi edo adiera arrotza, berezia dutenak.
3. Arruntak eta ezagunak izan arren, inguru honetan erabiltzen direla gogoratzeko bildu ditugunak.

(1) **A(d)itze(r)a izan** (entzun, ezaguna izan): *aitzea banittun gibel belar oik baño proatu beñez*

(3) **Aidanian** (dirudienez): *ua re aidanian etzebillen urruti...*

(3) **Aixa** (erraz, zailtasunik gabe): *aixa muite giñun guk trastiak garai artan.*

(3) **Alde bate(r)a ta beste(r)a** (toki batera eta bestera) *klinikan zaudenian baakizu etxeak alde batea ta bestea ibilli biar izate ue.*

(3) **Alde aundiya izan** (desberdintasun handia izan): *belarrak mou batea jarri eo ez alde aundiya u.*

(3) **Ale(g)iñak jo** (ahal den guztia egin): *urte aitan familiya aurea ateatzeko aleiñak jo in biar tzian*

(3) **Algarak** (barreak): *botikai gustua artu niyonian aik algarak bota zittun mojak, mikatz, mikatza zeon....*

(1) **Alkar mattiak** (lagun minak): *oik biyak aspalditik oso alkar mattiak dia*

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

- (1) **Amatzakua** (ama ordekoa): *bea etzan basarri artakua ta emakumi oi zun amatzakua*
- (3) **Amistadia izan** (adiskide izan): *orrek izane mundu guztiyakin **amistadia** baita...*
- (3) **An ere zakurrak anka utsik** (beste lekuetan ere egoera berdintsuan): *Ameriketan ere **zakurrak anka utsik**.*
- (3) **Ankaz aurre(r)a jun** (erori eta hil) *koartoko lanak itten ai nitzan da, an jun nitzan **ankaz aurrea**.*
- (1) **Anparuan** (babesean): *gabonetan an juntatze giñan mayan ingurun danan **anparuan**.*
- (1) **Armonin asi, ibilli** (erritan): *etxera jun danian asi zaizka **armonin**.*
- (1) **Atian txokuan** (atearen ondoan): *geo suiya etorri zan da **atian txokuan** jarri zun.*
- (2) **Atxurra brilluakin e(g)on** (atxurrarekin lan asko egin): ***atxurra brilluakin** eongo baa lan asko in biarra do.*
- (3) **Auntza ta onuntza** (alde batera eta bestera): *festetan jendia ibiltze zan **auntza ta onuntza**.*
- (2) **Aurre(r)atuba euki** (eskolan ongi ikasia eduki): *orren alabak **aurreatuba aka** alemana.*
- (3) **Auzkaldian** (beste puntan): ***auzkaldian** utzi nun trapuba ta ezin arrapatu*
- (3) **Azpitik zerbait eman** (propina eman): *ez gendun asko iraazten baño **azpitik e** zerbait emate ziuen da...*
- (1) **Aztarrika pranko in** (makina bat lan egin): *gerra denboan basarrin **aztarrika pranko in**.*
- (3) **Bakandu** (gutxitu): *ain familin e pilla earra bazian baño **bakandu** dia earki.*
- (1) **Be(r)e eriyuan** (hil zorian): *sarjentuak e bildurrez **bee eriyuan** aldein in tzun*
- (1) **Be(r)e denbo(r)a** (behar duen denbora): *Orrek sendatzeko re **bee denboa bieu**.*

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

- (1) **Be(r)je inbiarrak in** (komuneko beharrak egin): *be inbiarrak in da geo jun tzan bide ertzea bizikleta artzea ta...*
- (3) **Be(r)jekixa** (bere kabuz): *baakizu eziña beekixa etortzea bate abixatu be.*
- (2) **Begi(r)ik ez itxi** (lorik ez egin): *klinikan neonian enun begiik ixten, aik miñak!*
- (1) **Begik ate(r)atzen** (besteen inbidiatan, haiei begira): *Brunetekuak Zubita juten zianian, airi beira danak begik ateatzen, ze erropa zezken beira.*
- (3) **Beria (eg)in** (nahi duena egin): *arek beria in tzun azkenian da aguantatu in biar bestiak.*
- (3) **Beriartan** (zegoen bezala): *likidu arekin in tzien da geo beriartan utzi zien begiya*
- (1) **Berritsuke(ri)yak** (berriketa-kontuak): *ae, ai al da gue berritsukeyak kontatzen?*
- (1) **Berrizko se(g)ira jarri** (aurrekoa bukatu aurretik beste zerbait landatu): *aurrena berrizko seira jarri baatzan.*
- (3) **Bertan ge(r)atu** (hil): *gue anaya biyotzetik operatzea eaman tzuen eta bertan geatu zan*
- (3) **Bertatik berta(r)a** (gertu): *lana're bertatik bertaa eukitzia gauza aundiya da....*
- (3) **Bertatik berta(r)a** (gertu): *bertatik bertaa daude beintzat eta ezta ortañokua*
- (3) **Bixtak laundu** (bista ona izan): *nei eskola asko gustatzen zitzaian baño bixtak laundu izan balia...*
- (3) **Buelta batzuk (eg)iña izan** (dexente ibilitakoa izan): *aik e mendia eurreta buelta atzuk iñak izango zian.*
- (2) **Bueltan** (inguruan): *beatzi meiku nazkan oyan bueltan.*
- (3) **Buleketan / arkumexurretan** (jokuak): *Zertan jostatze giñan? buleketan da arkumexurretan da olakoxe jostaketetan.*
- (3) **Buru(r)atu** (burura etorri): *olako idea txarrak bai orri buruatu!*

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

- (2) **Dekla(r)atu** (egia esan): *gue alabak berriz meikuabai etzizon **deklaatu** belarrak eman tzizkiala...*
- (1) **Dekla(r)aziyuak e(g)in** (leku batean edo norbaiti zerbait esan): *an iñ izango zittun bee **deklaaziyuak** ta...*
- (3) **Denbo(r)a bateko** (garai bateko): ***denboa (b)ateko** kontuk dia oik, oaiñ ezto olakoik.*
- (1) **Desapiyua** (mehatxua): *gerra bukatu ta frenteako **desapiyua** izan gendun seittun.*
- (1) **Desapiyua** (jotzeko keinua, apusturako keinua): *bestiak indako **desapiyuakin** etzan ikeatu, aurre in tziyon.*
- (2) **E(r)antsi** (mozkortu, erasan): *saarduak e asko ean ezkeo **eantsi itteu**.*
- (3) **Edade bat izan** (adin berekoak izan): *orren amak eta nik **edade at deu***
- (2) **Edadiak ekarri** (urteekin batera etorri): *alperrik da, oi **edadiak beak ekartzeu**.*
- (3) **(Eg)iñala guziin** (ahalegin guztiz): *altxatzen sayatu nitzan **iñala guziin** baño alperrik*
- (3) **(Eg)inbiarra izan** (zerbait egiteko beharra izan): *baakizu ordun e zeoze banun **inbiarra** goyen da...*
- (3) **E(g)undoko pilla** (asko, ikaragarri): *lantokin famili artako **eundoko jende pilla** sartu zian*
- (1) **Enpliatu** (lan egin): *kaja aorrosen **enpliatze a**; famili guztiko danak or **enpliatze** zian*
- (1) **Eriyuan e(g)on** (minez, erdi hilik egon): *anka ebaki, baño bee **eriyuan** alde in tzun.*
- (1) **Ero(r)iya in** (erori): *Jesus! oi **eroiya in nun**...*
- (3) **Erotu ez beste guztik (eg)in** (ia erotu beharrean ibili): *garai artan **erotu ez beste guztik iña** izango zittun lanian...*
- (2) **Erreti(r)atu** (desagertu): *kalentura **erretiatu** zitzaianian ordun gosetu.*

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

- (1) **Erretira** (etxera joatea, alde egitea): *ordun, emakumia, erretiran etzian oain bezelakuak izaten...*
- (1) **Erretolika** (haserraldiko hitz-jarioa): *ordun beandu etorri ezkeo aik erretolikak izate giñun etxian*
- (3) **Errezelua izan** (ustea izan): *e no seuru baño errezelua akat oi Andoañea ezkondu zala.*
- (3) **Erropa zarta-zarta garbitu** (erropari kolpeak eman garbitzeko garaian): *erropa koelan sartu ta zarta-zarta garbitze gendun.*
- (3) **Eskapa(da) in** (arriskua igaro): *gue alabak eskapa galanta in tzun errekan, itto etzanian!*
- (2) **Eskola aundikua ez izan** (asko ez ikasi, eskolara asko ez joan): *eskola aundikua ez ta bestiei launtzen aittu biar.*
- (2) **Eskuk libratu** (eskuetatik lana kendu): *koñatak e umiak zeuzkan da baakizu beti eskuk libratzen.*
- (2) **Eskuk libratu** (zerbaiten ardura utzi): *gue nausiyak e zeoze gaizki ateatze zanian azkar libratze zittun eskuk.*
- (3) **Esne partitzia** (esnea etxez-etxe banatzea): *Esne partitzea jute zan goizian goiz astua ta marmitak artuta.*
- (3) **Esneta(ra)** (esnearen bila): *gue etxian esne naikoik eon ez ta Larrekotxea jute giñan esneta marmita artu ta.*
- (3) **Esnia altxa** (esneak gora egin): *beotzen kazo atian jarri ta esnia altxa ittea*
- (3) **Espe(r)atu** (espero izan): *garai artan espeatze gendun gauzak konpontzea baño etzan ola izan da...*
- (3) **Estropazu in** (zerbaiten kontra jo, behaztopa egin): *pasillun zeon aspiradora enun ikusi ta estropazu in det arekin da...*
- (3) **Etxe(r)atu** (etxe aldera abiatu, etxera joan): *goizian goiz laneako jeki biar baldin bazan, beandutu be etxeatu in biar!*
- (3) **Etxia pasa** (etxea garbitu): *nik eunero etxia pasatzet deskantsuk iñez*

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

- (1) **Ezaguera izan** (ezaugutu, ezaguna izan): *gibel-belarran ezaueraik ba al dezu?*
- (2) **Fallatu** (hil): *oain dala bi urte senire atek fallatu ziun, gaztenak gañea.*
- (3) **Fameliya izan** (haurra izan): *fameliya izan nunian konplikaziyo aundik izan nittun.*
- (3) **Famili(ri)k ez izan** (seme-alabarik ez izan): *familik etzuen da illobantzako izate zuen zaken dana*
- (3) **Fedia izan** (esperantza izan): *gue etxequak e belarrai badiye fedia*
- (3) **Gaizki esaka a(r)ittu** (besteaz gaizki hit zegin): *batzuk izateia, beti guizki esaka aittu biar izateuen oitakuak...*
- (3) **Gazte(r)ik jun** (gazterik hil): *ua re jun da ba gazte askoik...*
- (2) **Gertatu** (egon): *San Pedro eunian an gertatu giñan*
- (3) **Go(g)otik** (asko): *Arsuagatarrak Lasarten jauntxuak zian, diruba gootik zuen da.*
- (3) **Gozua jarri** (haserretu): *ua re gozua jarriko zan diru guztik galduta...*
- (3) **Istimatuba izan** (estimazioa izan): *Gue etxian arroz esnia istimatuba izate zan da oañ e....*
- (2) **Itsasun ge(r)atu** (itsasoan hil): *Oin illobak itsasun dia geatuk arrantza jun da*
- (1) **Ittule(r)ako mutilla** (idi aurrean ibiltzeko): *ittuleako mutilla biar izate zuen da an jute giñan gu...*
- (1) **Ittulian ibilli** (idien aurretik joateko mutila): *guk pesta gutxi, gu an ibiltze giñan ittulian da.*
- (1) **Ixkintxo in** (bartzarka-bartzarka alde egin): *semiai beti kafesnia jartze niyon baño arek al tzun guztitan ixkintxo itte zian*
- (3) **Ja** (jo, kolpatu): *Irristatu nitzan da ja nun tiestua ta...*
- (3) **Jakiña(re)n gañian jarri** (alde aurretik jakinarazi): *esan niyon koñatai jakiñan gañian jartzeko ta gero nai zuna itteko...*

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

- (2) **Jarri** (ohitu): *eozer ta re pertsona **jarri** ittea*
- (3) **Jende aundiya** (jende garrantzitsua, aberatsa): *Hipodromoa, zaldi karrereta **jende aundiya** etortze zan kotxe ta guzti*
- (3) **Jo ta aka(ba)tu** (kolpez hil): *attak **jo ta akatuko** zula esan tziyon.*
- (3) **Jo ta txikitu** (dena puskatu): *alemanak dana **jo ta txikitu** in tzuen.*
- (3) **Jo bate(r)a ta jo beste(r)a** (alde batera eta bestera): ***jo batea ta jo bestea** ta eztetela billatuko.*
- (1) **Jorna(d)a** (moskorraldia): *ordun e jendiak festetan **jornaa** earrak arrapatze zittun.*
- (3) **Juerga(ra)ko e(g)on** (festarako gogoarekin egon): *gaztia beti **juergako eote a baño gue** edadian...*
- (3) **Juna e(g)on** (buruak huts egiten hasia egon): *ua re ziara **juna emen do, gaxua!***
- (1) **Kantoriak** (kantariak): *gabonetan da **kantoriak** etortze zian gue etxea.*
- (3) **Kara** (aurpegia, erreakzioa): *gau guztiya parrandan pasa ondoren, anaya bializun etxea, ia etxeak ze **kara** jartze zuen.*
- (2) **Kargapian bizi** (karga edo lan handiz bizi): *gu ezkea zuek bezela azitakuak, gu **kargapian bizittuk** gea*
- (1) **Karriatu** (ekarri, garraiatu): *geok **karriatzen gendun** ura erropa re garbitzeko*
- (2) **Kartutxuak erre** (kartutxoak gastatu) *akatuko et ba kartutxo guztiyoik **erretzeako.***
- (3) **Komerik** (istiluak): *partua konplikatu zitzaian da geo **komerik!***
- (3) **Komerik izan** (istiluak edo gorabeherak izan): *gaztiak juergako gogua izateu beti ta ordun e **komerik izate zian...***
- (1) **Kontuk ate(r)a** (pentsatu, kalkulatu): *mezetatik etortze zan anayan zapatak jantzita jute nitzan geo ni, ortik **kontuk atea***
- (3) **Kontuk esan** (kontu-kontari egon): *an aitze giñan danak tertulin, **kontuk esaten...***

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

- (3) **Koxkor** (txiki): *Asto **koxkor** bat bagendun guk.*
- (1) **Kuartilla e(g)on** (gordeketan paretaren kontra zenbatzen egon): ***kuartilla zein tzeon** ikusi nunian an atea nitzan korrika...*
- (3) **Kurruxika** (garrasika): ***kurruxika** asi zian txakurkumiak ta nik ne artian, nun ote do ama...*
- (2) **La(g)unik andi(e)na** (lagunik onena, minena): *ne **launik aundinak** in tzian oi...*
- (3) **Lan puska bat in** (lan asko egin): *Baserrin **lan puska at** indakuak gea gu.*
- (1) **Lante(g)iya** (lana): *etxeko lanak utzi ta beste **lanteira** jute giñan*
- (3) **Lengusu propiyua** (odoleko lehengusua): *ezautze al dezu? Oi ne **lengusu propiyua** a.*
- (1) **Leyo-zulotik be(g)ira** (lehiotik begira): *an eote zan gau ta eun **leyo-zulotik beira**.*
- (2) **Likiduakin iñ** (likido batekin igurtzi): *Alamandea eaman niñuen da **likiduakin in** tzien...*
- (2) **Lota(r)a jun** (hil): *andik eun gutxita jakin nun ua **lotaa jun** tzala*
- (2) **Lua etorri** (logaletu): *nik berriz ezin aguantatu **lua etortze** zitzaian da...*
- (1) **Lur e(g)oskorra** (lur zaila): *an laneako **lur eoskorra** zeola ta beste lekun batea jun biar*
- (3) **Majiña bat jun da etorri in** (joan-etorri asko egin, buelta asko eman): ***Majiña at jun da etorri iñak** gea Donostia.*
- (1) **Makiña bat otzbero pasatakua** (neguan eta udan, eguraldi onarekin eta txarrarekin lanean aritutakoa): *nee gizona **makiña at otzbero pasatakua** a Antiguako bidian.*
- (2) **Marruba** (zarata): *gue etxetik aitze zian kotxian **marrubak**...*
- (1) **Mattia** (zalea): *ni enaiz beñe **elur-mattia** izan, kontrakua...*
- (1) **Me(r)indatzeko izenian artu** (meriendatzeko aitzakiatzat hartu): ***meindatzeko izenian artze** zuen saardoteiya Brunetarrak ta an jute zian*

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

- (1) **Mella (eg)in** (eragina izan): *bestiak goizeko orduboitán jekitzen ikustiak **mella itteit***
- (2) **Mimo pixkat artuta euki** (pixkat mimatuta egon): *gue umiak e **mimo pixkat artuta eukiko zun da...***
- (3) **Muiñ in** (musu eman): *gue etxian, etxeko gaztenak zarrenai **muiñ itte** ziyon*
- (1) **Muturrak ausi** (aurpegian min hartu): *kendu zazu oi ortik, **muturrak austeko re!***
- (1) **Neurriya artu** (tamaina hartu): *saarduai re **neurriya artu** biar bestela baakizu.*
- (1) **Nunbattetik jan** (zerbaitetik bizi): *fabrikak iriki? Urrunguak e **nunbattetik jan** bierkoue aizu!*
- (2) **Odol txarrak ti(r)atu** (gorputzeko gauza txarrak bota): *belarrak gorputzeko **odol txarrak tiatze ittula.***
- (3) **Oinbeste(r)añõ** (horrenbeste) *nik **oinbesteañõ** eztakit baño ala emen da.*
- (3) **Oñazia asi** (mindu): *elurretan bai gustoa baño **oñazia aste zanian** eskutan amonak berotze zizkiun.*
- (1) **O(r)ain denbo(r)a gutxi** (orain dela gutxi): *oik ezkonberrik dia, **oain denboa gutxi** ezkondata*
- (1) **O(r)aindik o(r)ain** (orain dela gutxi): ***oaindik oain** ikusi nun nik emakumi oi kalian*
- (3) **Parrokiya** (bezeria): *plazako taberna orrek **parroki** obia zun...*
- (2) **Pausuan-pausuan ibilli** (poliki poliki ibili): *ua re ni bezelaxe kaderatik gaizki dabil da **pausuan-pausuan ibiltzea.***
- (3) **Politta** (nahiko ona): *San Pedrotan da bertsolari **polittak** izate zian Lasarten.*
- (1) **Prepa(r)aziyuak in** (besteentzako zerbait prestatu): *Kaja aorrosen besteentzako **prepaaziyuak** itten lan itteu.*
- (1) **Propinak** (jipoia): *etxea beandu jun ezkeo laxte ziñun **propinak...***
- (3) **Sasoyan il** (gazterik hil): ***sasoyan** illa izan bier tzun arek.*

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

- (3) **Seko** (zeharo): *residentzitik **seko** aulduba etorri nitzan, ankan gañian eon eziñik.*
- (1) **Seterrua** (sufrimendua): *dana pasmatuba neon, olako **seterroik!***
- (1) **Tarean lan in** (a destajo, egoera txarrean lan egin): *garai artan fabrikan **tarean lan in** biar izate zan.*
- (1) **Txori mukiya izan** (garrantzirik/fundamenturik gabeko pertsonatzat edo gauzatzat hartzea): *ni zure atzetik zure billa, azkenean billatu zattut bai, **ze uste zenun txori-mukiya nitzala?***
- (2) **Ume pian bizi** (ume asko izan): *gu **umepian bizittuk** gea, illoba oik danak nik azik dia beintzat eta*
- (3) **Urtiak eztue barkatzen** (urteak joan ahala zahartu egiten garela): *baakizu **urtiak eztue barkatzen** da ezin dia gauza oik iñ*
- (2) **Zaildu** (sendotu, gogortu): *gu beti oñez ibiltze giñan da oñak **zaildu.***
- (1) **Zakur andiya** (garai bateko txanpona): *garai artan sei **zakur andiatik** jute giñan Donostia esne saltzea*
- (2) **Zarren leziyuak** (zaharren aholkuak): *gaur egungo gaztiak eztittuzue **zarren leziyuak** goguan artzen baño....*
- (2) **Zarrenai eldu** (zaharrenengana joan lanean laguntzeko): *etxian, baakizu, **zarrenai eltze ziyen** laneako, ta zarrena ni nitzan da...*
- (3) **Zein baño zein** (konparaketa): *emakumiak an etortze zian **zein baño zeñ** earro, txitxikiñ da, ez oaiñ bezela...*
- (2) **Zenbate(r)añokua azi** (oso haundia egin): *gue astua **zenbateaiñokua azi** ez ta baakizu...*
- (1) **Ze(r)ak dantzatu** (urduri edo nerbioso jarri): *Kafiak **zeak dantzatu** ta etxea jun nai ez.*
- (1) **Zerkausiya** (azoka): *jeneralian launbatetan izate zan **zerkausiya** ta inguruko basarritarrak etortze zian.*

8. Lexiko berezia

Bideoz edo zintaz bildu ditugun transkribaketetatik lexiko bereizgarriena biltzen saiatu gara. Zenbaitetan hemen agertzen diren formak ez dira bereziegiak, gaur egun ere sarri erabiltzen baitira, eta horrexegatik bildu ditugu, hain zuzen ere erabilera horiek berriak ez direla ikusteko. Sarritan gaztelaniatik hartutako maileguak dira, baina Lasarte-Oriako errealitatearen parte direnez, laburki hemen biltzea erabaki dugu:

Abiaziyo (hegazkintza):
Adelantu (aurrerapen):
Aideplano (hegazkina):
Aintzakotzat artu (garrantzia eman):
Alabiar (patua, destinoa):
Amarra (lotura):
Amarratu (barkua lotu edo gelditu):
Amezkill (kanpaia):
Anparo (babesa):
Aplakatu (lasaitu):
Armoni (errita):
Arrantxo (soldaduen janaria):
Aundiera (zauria, handitua):
Aur-laun (plazenta):
Ayate (Oriamendi inguruaren izena):
Ayudante (laguntzailea):
Azaoliyo (janaria):
Aziyo (ekintza):
Azpitako (ganaduaren ohe gisa erabiliz azpian jartzeko):
Aztarrika (metaforikoa: gora eta behera, saltsan):
Baile (dantza):
Baraurik (jan gabe):
Bietxur (bide-zidorra):
Bollinero (gaztainak erretzeko danbolina):
Burruntzi (izotz-puska zintzilikatua):
Detenittu (gelditu):
Distingittu (desberdindu):
Ermano (frailea):
Erreparatu (behatu):
Erretolika (errita):
Errezelo (ustea):
Eskuare (arrastelua):

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

Espeatu (espero izan, itxaron):
Estraordinayo (berezia):
Estropazu (behaztopa):
Ezaguera (ezagutzea):
Filarmonika (esku-soinua):
Gibel-belarra (belar-mota bat):
Gixa (antzera):
Gizaseme (gizonezkoa):
Ittuleako mutil (idiari bidea erakusten dion mutila):
Itturri-belar (belar-mota bat):
Ixtant (momentua):
Jaten (animalien janaria, belarra):
Kallentura (sukarra):
Kara (aurpegia):
Kilima (kilika):
Kixkali (gehiegi erre):
Komurgatu (jaunartzea egin):
Kuela (arropa egosi eta ondoren garbitzeko ontzia):
Kurruxika (garrasika):
Kuxidade (narraskeria, zikinkeria):
Lante(g): i (lana):
Lente (betaurrekoa):
Letura (irakurketa):
Leyo-koska (leiho-ertza):
Lurrin (ur-gasa):
Madre (moja):
Marru (oihu):
Martiña-belar (belar-mota):
Musika (banda, taldea...):
Neskatxa (neska gaztea, ezkongabea):
Orro (garrasia):
Otordu (bazkaria, janaria):
Paera (zartagia):
Paliza (pasara):
Penatu (tristetu):
Perratxa (Golf-eko makila):
Pitarra (urarekin nahastutako sagardoa):
Pregunta (galdera):
Prenda (arropa):
Printzatu (zartatu):
Printzipal (garrantzitsu):
Propina (metaforikoa: errita):
Puntziyo (elizkizuna):
Rebixta (aldizkaria):

Lasarte-Oriako euskararen azterketa

Rekonozittu (onartu):
Sakote (perrataxak jasotzeko poltsa):
Serora (kanpaiak jotzen dituen emakumea):
Sestera (sestoa):
Seterro (sufrimendua):
Sikiera (behintzat):
Sonatu (entzuna):
Tiobibo (umeentzako atrakzioa):
Trastakeri (bihurrikeria, gaiztakeria):
Tratu (baserriko produktuak azokan saltzeko):
Txantxa (broma):
Txurnillo (orkatila):
Upelate(g): i (upelak dauden lekua):
Uzta (bildutako laboreak):
Zerkausi (barazki eta landareen azoka):
Zimitayo (elizaren sarrera):
Zirrinda (lur-zati luze ta estua):
Zurrukutun (janaria):